



"Nire burua irakasle ikusten nuen, baina lan honek asko eman dit"

Idoia Goikoetxea Gomez altsasuarra 30 urtez Altsasuko Udaleko Berdintasun teknikaria izan da / 2-4



Sakana Saria Bakaikura / 12-13

Enpresetan berdintasun politikak ezartzeko estrategia abiarazi du Sakanako Enpresen Elkarteak / 14

Aralarko ostatua berritu eta gazte aterpea egiteak 2,5 milioi euroko aurrekontua du / 8

Euskaltzaleen Sareak bere burua aurkeztu eta azaroaren 26ko bilera irekirako gonbidapena egin du / 6

133 sakandarrek osatu zuten Harresien Lasterketa. Horietako asko etzi Behobian arituko dira / 15

2023an Rural Kutxa talde profesionalen jarraituko du Josu Etxeberriak, lesio larria gaindituta / 16-17

Olatz Ovejero Alfonso zinemagilea bi lan prestatzen ari da: 'Iruñea, mon amour' eta 'Hiru bider' / 23



Idoia Goikoetxea Gomez Berdintasun teknikaria izandakoa Gure Etxearen, Berdintasun zerbitzuaren, atean.

"Beti gustatu izan zait jendearekin lan egitea"

IDOIA GOIKOETXEA GOMEZ BERDINTASUN TEKNIKARI OHIA

Hiru hamarkadaz Altsasuko Udaleko Berdintasun zerbitzuan lan egin ondoren, urriaren 19an azken lan eguna izan zuen altsasuarrak

honen atea. Eskerrak eman nahi dizkio GUAIXERI "beti ondoan" egon delako.

Nola hasi zinen Berdintasun teknikari bezala?

Filosofia ikasi nuen eta helduendako eskolan klaseak ematen hasi nintzen. Sakanako Udalek ordaintzen zuten batxilergoa eta Unibertsitaterako sarrera prestatzeko eskolak ziren. Han nengoela Olaztiko Udaletik deitu ninduten dirulaguntza batekin edo lan egiten ari ziren emakumezkoendako ikastaro bat prestatu zutelako eta klaseak emateko. Alfabetatze klaseak ziren. Han konturatu nintzen oraindik, 1990ko hamarkadan, bazirela emakumeak irakurri eta idatzi ezin zutenak. Gizonek lantegietan ikasten zuten, baina emakumeek ez. Kezka horrekin Altsasuko Udaleria hurbildu nintzen eta bertan Joakina Zubiria zinegotzia zen. Joakinak esan zidan zerbait egingo genuela, baina apustu handi bat egin behar genuela. Ez dakit nola edo zer egin zuen eta zer eztabaida izan zituen, baina 1992an Emakumeen Bilgunea martxan jartzea lortu zuen. Lanposturako deialdia egin zuten eta aurkeztu nintzen. Batzuk aurkeztu ginen. Azterketa bat eta elkarrizketa bat egin nituen, eta plaza lortu nuen. Lanaldi erdiko plaza zen momentu horretan. Horrela hasi nintzen.

Zerbitzu berria eta berritzailea zen. Momentu horretan mugimendu feministak urrats handiak eman zituen. Batez ere Bizkaian Emakumeen Bilgune nahiko zeuden, eta bageneukan nori begiratu. Berdintasunaren arloan lortzen duguna, beti esfortzu handiarekin da.


Emakumeen Bilgune bezala hasi eta Berdintasun zerbitzua bihurtu zen. Nola izan zen garapen hori?

Urteekin eman zen. Bilgunearen lehenengo helburua zen batez ere emakumeak etxetik kalera ateraraztea. Zergatik? Momentu horretan Altsasun ez zegelako ezer; ez zegoen kirol ikastarorik, ez zegoen antzerkirik,

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Gure Etxearen lehenengo solairuan dago Altsasuko Udaleko Berdintasun zerbitzuko bulegoa, aurretik Emakumeen Bilgunea deitutakoa. Urriaren 19tik aurrera hutsik dago. Egun horretan jubilatu zen Idoia Goikoetxea Gomez, 30 urtez Altsasuko Berdintasun teknikaria izandakoa. Oraindik egoera berrira moldatzen ari dela aitortu du, "momentu honetan gehiago identifikatzen naiz oraindik Berdintasun teknikari bezala teknikari ohia bezala baino". Teknikari berria hasten denean guztiz itxiko du etapa


"BERDINTASUNAREN ARLOAN LORTZEN DUGUNA, BETI ESFORTZU HANDIAREKIN DA"



EGOKI
Ventanas PVC Leihok
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



ez zegoen dantzarik... Bazegoen Nafarroako Gobernuak noiz-behinka antolatzen zuen mekano-grafia ikastaro bat, baina oso gutxi. Bigarren helburua edo orokorra emakumeen parte hartzea gizartean bultzatzea zen. Horiek ziren helburuak, eta bidea sortzen hasi ginen. Aurretik ez zegoelako biderik. Bidea egin dugu, hemen eta beste toki batzuetan. Beti egin dut lan taldean, beste teknikariek eta herriekin. Pixkanaka gure lana sistematizatu egin da ere, eta legeen, programen eta emakumeen eskaeren bidez zabaldu dugu lan egiteko esparrua. Ez da bakarrik emakumeekin lan egitea, baizik eta gizarte osoarekin. Emakumeak, gizonak, gazteak, adinekoak... Baita ikastetxeetan, lan munduan, sindikatuekin eta abar. Pixkanaka hori egin genuen.

Nola gogoratzen dituzu hastapenak?

Zailak. Oso zailak. Bi aldiz utzi nahi izan dut lana. Lehenengoa, hemen, bigarren urtean. Gero Nafarroako Berdintasun Institutura joan nintzen, eta bigarren hilabetean utzi nahi nuen lana. Baina geratu nintzen, eta honaino.

Zergatik izan zen zaila?

Hasierako programa oso polita planteatu genuen, baina nik beti esaten dut lan honetan ez dugula gizarteak eskatzen duena bete behar, baizik eta gu pixka bat aurrerago joan behar garela. Gauzak proposatu behar ditugu. Aurreikusitako. Oso proiektu politarekin hasi ginen, baina ez genuen lortzen parte hartzea edo onarpena. Parte hartzea oso zaila izan da beti. Orduan, nik pentsatzen nuen ez nekiela lan hau nola egin. Gainera, ez zegoen errekursorik. Gogoratzen naiz indarkeria jasaten zuen lehenengo emakumearen hitz egiten, eta nik ez nuela emateko errekursorik. Inurri lana izan da, poliki-poliki.

Orain errekursorik badago?

Azkenean, 30 urte egon naiz eta lehen baino askoz errekurso gehiago dago. Lana sistematizaturik dago eta edozein Berdintasun teknikaririk badauka eredu bat eta ildo batzuk. Gure lana babesten duten legeak daude eta abar. Orain gauza asko daude.

Nafarroako Berdintasun Institutuan egon zinen ere. Nolako esperientzia izan zen?

Momentu horretan Erriberrin Berdintasun teknikaria zena

Institutuko zuzendari izendatu zuten eta Nafarroan hiru edo lau teknikari geunden. Ni funtzionari bakarra nintzen, eta bere taldean lan egiteko deitu zidan. Izugarriko esperientzia izan zen. Haiek badute programa askoz handiagoa inpaktu handiagoarekin. Programak emakume aditu eta inportanteekin lantzen dituzte eta orduan ezagutu nituen emakume asko eta ideia asko. Mundu honetan aukera asko izan nituen. Baina badago beste alde bat: mundu politikoa. Nahiz eta nire lanpostua teknikoaren, ez zen politikoa, politikaren mundutik oso hurbil zegoen. Krisialdi ekonomikoaren garaian egon nintzen han; 2008an joan nintzen. Geroz eta diru gutxiago sartzen hasi zen, geroz eta aukera gutxiago, proiektuak aurrera ezin eramane... Niri beti gustatu izan zait jendearekin lan egitea eta pentsatu nuen Altsasun nire plaza zegoela eta hemen bertako jendearekin eta erakundeekin lan egingo nuela, komunikazioa askoz errazagoa zela. Itzuli nintzen, eta oso pozik.

Han ikasitakoarekin itzuli zinen.

Bai, hemen martxan jartzeko. Nik uste dut azken etapa honetan hemen utzi dudala han ikasitakoa.

Zein zen zure lana zehazki? Nolako zen zure egun bat?

Hasteko, egunero sorpresa bat dago. Hori ziur. Ez nintzen aspertzeko. Pentsatu behar da udal teknikari bat dela, administrazioa, beraz, administrazio lana ezinbestekoa da. Administrazio lan horrek denbora asko eramaten du. Dena idatzita eman behar da, arrazoituta, diru kantitate jakin batekin, nora bideratuko den eta zergatik aukera duzun pertsona hori edo bestea. Beste alde batetik, azken etapa honetan Bigarren Berdintasun Plana onartu zen eta hori ebaluaketan utzi dut. Hurrengo Berdintasun teknikariak badu lana: Hirugarren plana. Barruko lana ere egiten dugu: udal atal guztiekin lan egitea. Nola sartu berdintasuna kulturaren, kirolaren, hirigintzan, aurrekontuan... Hori zaila da. Zaila da formakuntza behar delako. Orduan, berdintasun arloak aholkulari moduan lan egiten du. Pertsonekin lan egiten denean dena motelago doa. Ikastetxeekin ere lan egiten dugu; Altsasuko ikastetxee-



Idolia Emakumeen bilguneko lehengoa urtetan, 1990ko hamarkadan. ARTXIBOA

tan bi programa ditugu, bat LHn eta bestea DBHn. Indarkeria jasaten duten emakumeekin zuzenean lan egiten dugu, gizarte zerbitzuekin, osasun etxearekin, enplegu zerbitzuekin, udaltzainekin eta abarrekin elkarlanean. Aholkularitza juridikoaren zerbitzua ere badago. Urtean 40 bat emakume etortzen dira. Berez ez nuen egin behar, baina lehenengo harrera ematen hasi nintzen eta horrela jarraitu dut. Nafarroako teknikari sarean gaude ere eta horrek emai-

"HASIERAK OSO ZAILAK IZAN ZIREN; BI ALDIZ UTZI NAHI IZAN DUT LANA, BAINA GERATU NINTZEN"

"OSO PROIEKTU POLITAREKIN HASI GINEN, BAINA EZ GENUEN ONARPENA LORTZEN"

tza oso onak eman ditu. Baina lan gehiago egin behar da. Nafarroako Institutuarekin ere lan egiten dugu; proiektuak bultzatzen dituzten eta udaletan martxan jartzen ditugu. Hori da nik egin dudana, baina erronka eta hutsune batzuk nabaritu ditut ere.

Zeintzuk dira hutsune eta erronka horiek?

Pandemiak azken plana gelditu zuen. Duela bi urte eta erdi bat-batean etxean gelditu ginen ezin erlazionatu, ezin ikastaroak bultzatu, ezin ezer ez. Plana aldatzea proposatu nuen eta pentsatu nuen kanpoko jendearekin ezin bada lan egin, barruko jendearekin lan egin beharko dugu. Orduan, azken bolada honetan genero zeharkakotasuna administrazioa deitzen duguna bultzatu dut. Teknikarekin aurrekontuan lan handia egin dugu: zenbat diru daukagun, non gastatzen dugun, zer nahi dugu diru horrekin, zeintzuk dira lehentasunak eta horiek guztiak. Horretan lan asko egitean, beste arlo batzuk alde batera utzi ditut. Erronkak hirugarren plana egitea da. Uste dut emakumeen jabetza eskola bultzatu behar dela ere, niri falta zitzaidan emakumeekin lan hori egitea; iaz hasi ginen baina jarraitu behar dugu gizonekin lan egiten, gainera, oso harrera ona izan zuen eta hausnarketa talde polita sortu zuen, oso pozik. Badago beste erronka bat oso lelo polita duena: *Zaintzak bizitzaren erdigunean jarri*. Asmatu behar dugu nola egin.

Helburuak bete dira?

Nik uste dut hasierako helburua bete dela. Dudarik gabe. Duela 30 urteko egoerarekin alderatuz, orain kalera ateratzen gara emakumeak parte hartzen ikusten ditugu. Baina ez du zerbitzuak bete, gizarteak bete du. Berdintasun zerbitzuak eta gizartea ildo beretik joan behar dira. Bestela ez dugu ezer egiten. Lehenengo helburua, beraz, bete dela esan daiteke. Bigarren helburua, administrazioan berdintasuna sartzearena bidean gaude. Oraindik oso formala da dena. Legeak daude, prozedurak daude, instrukzioak eta horrelako gauza gehiago daude baina hori erreala egin behar da. Oinarria jarrita dago, baina administrazioan lan egiten duten langile guztiak prozesuan sartzea behar da.

HURRENGO ORRIAN JARRAITZEN DU »

Beste alde batetik, emakumeen harrera integralean nik uste asko aurreratu dugula. Emakumeek indarkeria jasan dutenei harrera emateko sisteman konfiantza dute. Baina indarkeriarekin amaitzea eta gizartearen erantzuna gelditzen zaigu. Egiteko falta den beste arlo bat, ez duguna asko aurreratu, batzuetan urteka, batzuetan bai beste batzuetan ez, enpleguaren gaia da. Formalki, berriro, aurreratu da; berdintasun planak daude, sexu jazarpen eta jazarpen sexualaren protokoloak daude... Baina ez dut ikusten lan hitzarmena negoziatzen denean berdintasun neurri positiborik hartzen direnik. Hau da, enpresari exijitzea lanpostu horietan erreferente moduan talde bat sartzea. Ez dut ikusten lan osasunean emakumezkoen beharrak sartzen direnik. Baina ez dut ikusten politika edo arlo askotan ere ez. Bestetik, duela bi urte, niri asko gustatu zitzaidan proiektu oso txiki bat egin genuen. Parte hartze gutxi izan zuen, baina bidean hasi ginen: Altsasun festa, folklorea, sinbolo eta abar asko daude eta oraindik ez dugu hausnartu hori genero edo feministen ikuspuntutik. Hau ez da emakumeendako politika bat egitea; emakumeak han aztertutik daude eta haiendako politika bat egingo dugu. Ez. Gizarte bat dago eta horren barruan gehienak emakumeak dira. Horregatik politikak kontuan hartu behar du gehiengo horren beharrak. Esaldi hori oraindik harrigarria egiten zaie batzuei. Ulertezina.

Dagoeneko berdintasuna dagoela diote.

Baina datuak ateratzen badira ikusten da ez dela egia. Sakana enpresetan emakumeak %17 dira aurreko urtean egindako diagnostikoan. Ez dut erantzungo, baina galderak botako ditut: Zer kirolak dauka diru gehien? Nortzuk ibiltzen dira gehien bat kirol horretan? Aisialdian nortzuk disfrutatzen dute gehiago? Nortzuk egiten dituzte etxeko lanak oraindik?

Uste duzu batzuetan Berdintasun zerbitzuaren edota zure lana ikusezina izan dela?

Bai. Jendeak ez du ezagutzen. Ebaluaketa planteatzen nik esan nuen kaleko jendearekin talde bat egin behar genuela. Ikaste-txeetan galdetzen badiegu, irakasleei, orientatzaileei eta abarri

esango dute baietz, ezagutzen dutela, badakitela non gauden, planak indarrean ditugula, arazoren bat izatekotan badakitela nora jo... Baina ikastetxetako guraso gehienek ez dakite ezer. Administrazioak arazo handi bat du eta komunikazioa da. Ez dut transparentzia esango, baita ere, baina komunikazioa falta da eta askotan GUAIXEK egin du lan hori. Komunikazio gehiago behar litzateke. Administrazioaren betebeharra da zer egiten ari den esatea, norekin nahi duen lan egin... Legealdiaren arabera aldatzen da hori ere.

Zer behar da berdintasun teknikaria izateko?

Nafarroan ofizialki betebeharrak bakarrik dago: gradu bat edo lizentziatura bat izatea. Gero zer behar da? Formakuntza handia. Alde batetik, feminismoan. Feminismoaren historian eta teorian. Beste alde batetik, formakuntza administrazioan eta bere prozeduretan. Bestela ezin duzu ezer egin. Orain masterrak daude. Aurten NUPen masterra ematen hasi dira. Gehienok master hori egin dugu, nik duela hamar urte edo. Horrek guztiak laguntzen du eta baloratzen da azterketan. Agian nire ustez inportanteena feminista izatea da; derrigorrezkoa. Beste lanpostu batzuetan agian ez da beharrezkoa pentsamolde edo ideologia bat izatea, baina honetan oso zaila da hori gabe ideia batetik hasten delako dena: emakumeen eta gizonezkoen arteko desberdintasuna eta diskriminazioa.

Momentu txarrak bizi izan dituzu?

Niretzat okerrera eta txarrena indarkeria jasan duten emakumeak artatzea izan da. Are gehiago kasu horiek kalean ezagutzen direnean. Badaude beste momentu oker batzuk min handia egin didatenak, adibidez, emakume bat behar batzuekin etortzen denean eta ezin duzuenean ezer egin. Ezer. Ikusten duzu emakumea seme-alabekin kalean geldituko dela. Udalaren laguntza izan dut beti, eta aste baterako janaria eta lo egiteko tokia lor daiteke. Baina gero ezer. Horiek izan dira momenturik txarrenak.

Eta onenak?

Niretzat jendearekin lan egitea. Ez bakarrik kaleko jendearekin lan egitea, lortu dut hemengo langileekin, entitate askoko langileekin lan egitea eta niretzat jendea ezagutzeko izugarritzko aukera izan da. Jende desber-



Idoia Goikoetxea Gomez 30 urtez Altsasuko Berdintasun teknikaria izandakoa.

"HURRENGO BERDINTASUN TEKNIKARIAK BADU LANA: HIRUGARREN BERDINTASUN PLANA"

"BERDINTASUN ZERBITZUAK ETA GIZARTEA ILDO BERETIK JOAN BEHAR DIRA"

dinarekin harremanetan jartze-ko. Oraindik harreman asko daukat osasun etxeko langileekin, udaleko langileekin... Beste momentu on bat izan da ni gaztea nintzenean zaharrak ziren emakume oso adituekin topo egin nuen. Niretako eskarmentu handiko emakumeak ziren, eta nik esaten nuen zaharra nintzenean horiek bezalakoa izan nahi nuela. Zahartzen ari naizen heinean ezagutu ditut oso emakume adituak, baina gazteak; eta asko ikasi dut emakume gazte horien-gatik azken bolada honetan. Niretzat ez da lan erraza, baina aukera asko eman dit nire bizitzarako.

Karga emozionala ere handia da, ezta?

Izugarrria. Ikasi behar da ere. Anekdotak bat kontatuko dut. Egin nuen inoiz egin behar ez dena. Indarkeria pairatzen zuen bigarren emakumea senarrarekin bizi zen eta indarkeri handia jasaten zuen. Nire telefono pertsonala eman nion. Nik ireki nion bidea eta berak hartu zuen, eta normala zen. Ikasi behar duzu zer egin dezakazu eta zer ez; zer egingo zenuke zuk emakume horren egoeran egonda, eta zer egin ahal zuen berak. Hori banatu behar da eta ikasketa sakona da. **Espero zenuen zure bizitza profesionala horrelakoa izatea?**

Ez. Nik nire burua irakasle izateko prestatu nuen. Argi neukan. Askok gustatzen zait eta noiz-behinka istorio hori ateratzen zait eta maistra bat ematen dut. Helduendako eskolan aritzea izan da nire lanposturik kuttunena. Askok gustatu zitzaidan. Hasi nintzenean lan honetan gustatu zitzaidan, bestea baino zailagoa zen, baina poliki-poliki sartu nintzen eta oso pozik nago. Nik horrela baloratzen dut. Hau izan da nire bizitzan izugarritzko aukera. Lanak gauza asko eman dizkit. Baina honetan lan egitea pentsatu? Inoiz ez. Askotan gertatu izan zait zertan lan egiten dudan galdetzea eta Berdintasun teknikaria naizela esatean jendeak ez jakitea zer den.

Eta orain zer?

Momentu honetan oso despistatuta nago. Hainbeste ordu lan egiten eta bat-batean denbora hori libre duzu. Nik uste dut hurrengo teknikaria hasten denean itxiko dudala atea. Oraindik ez dut pentsatu zer egingo dudan, baina egingo dugu zerbait. Proiekturen bat badut buruan.



ASTEKOA

AITZIBER CAMPION GANBOA

3 segundoen araua

Hauxe da 3 segundoen araua: ez esan inoren itxuraz 3 segundotan aldatu ezin duen ezer. Izan ere, zertarako adierazi nahi ote diogu pertsona bati zenbat argaldu den, pikorrak edo zimurrak dituela ala burua soilten ari zaiola? Gehiago edo gutxiago begiratuta, denok daukagu ispiluren bat etxean eta, beraz, gure buruari buruzko informazio hori badaukagu.

Dagoeneko badakigu zeinen kaltegarria izan daitekeen pertsona baten autoestimarentzat bere itxurari buruzko komentarioak entzutea, ezta? Bada, autoestimu orekatua izatea sozializazio egokirako ezinbestekoa den heinean, pertsona guztien autoestimua denon ardura eta erantzukizuna izan beharko da; jendarte osasuntsua eraiki nahi badugu, behintzat.

Are gehiago, zabal dezagun araua gure aurrean ez dauden pertsonenganaino ere. Norbait kuadrillatik urruntzen denean hari buruz "nola loditu den" entzuten baldin baduzu, erraz pentsatuko duzu zuk alde egiten duzunean zuretzat ere izango dela aipamenen bat.

EZ ESAN INOREN ITXURAZ 3 SEGUNDOTAN ALDATU EZIN DUEN EZER

asetzen ari garen beharra. Astindu ditzagun gure aurreiritziak. Arakatu dezagun gure sinismenetan.

Eta zer da, ba, 3 segundotan alda daitekeena? Izan gaitezen jatorrak eta norbaitek muki bat sudurretik kanpo baldin badauka, diskretuki eta goxotasun osoz, esan diezaiozun. Edo hortzak ezpainetako gorritz zikinduta dituela, baita motxilan gona bilduz joan bazaio eta kuleroak agerian baditu. Esan diezaiozun jendeari lagungarri zaiona.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). **GUAIXEK** eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakzioara. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eu

HARA ZER DIEN

Autonomia eta bizi kalitatea bermatzeko laguntzak, martxan

SAKANAKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAK

Etxebizitzak irisgarriak egiteko edota laguntza produktuak eskuratzeko dirulaguntzak martxan ditu Nafarroako Gobernuak, 65 urtetik gorakoei, desgaitasun edo mendekotasunen bat dutenei, etxebizitza, autoaren eta behar dituzten laguntza produktuak behar dituztenei zuzendutakoak.

Bi laguntza mota dira:

1. Irisgarritasun unibertsala ziurtatzeko -ateak automatizatu, eskailerak kentzeko obrak, bideo

atezainak jarri e.a. - balio dutenak, etxe bakarrei zein komunitateei zuzendutakoak. Dirulaguntza hauek eskatzeko epea 2023ko martxoa da.

2. Laguntza produktuak eskuratu eta instalatzeko, norberaren etxean edo autoan. Honen bitartez, lortu daitezke altzariak eta etxebizitzetarako egokitzapenak -garabi mota ezberdinak, arnesak, ohe elektrikoak, besaulki ergonomikoak-, irisgarritasun bertikalerako sistemak (igogailuak, eskailera-igogailuak e.a.), etxeko segurtasunerako laguntzak (alarma duten sentore-sistema ezberdinak e.a.), etxean moldatzen laguntzeko domotika-sistemak, mugikortasunerako laguntza-produktuak (gurpildun aulkiak,

motor elektrikoak e.a.), autoendako osagarriak eta egokitzapenak, komunikaziorako eta informaziorako laguntza produktuak (ikusmen eta entzumen arazoak dituztenendako), etxeko lanak egiten laguntzeko produktuak eta bestelakoak. Laguntza hauek eskatzeko epea 2023ko azaroa da.

Laguntza hauen xedea herritarren irisgarritasuna bermatzea da, autonomia eta bizi kalitateak handitu eta pertsona horiek beren ohiko etxebizitzetan geratzea bermatzea. Hau da, egoitza batera joan beharra atzeratzea edo saihestea. Eskaerak eta informazio zehatzagoa, beti bezala, Sakanako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan.

GUTUNA

Urriaren 8an bertan izan ginen, urtarrilaren 7an ere bertan izango gara!

MIKEL MUNDIÑANO LARRAZA

SAKANAKO SARE

Lehenik eta behin eskerrak eman nahi dizkizuegu eta zorionak! Zorionak Sakana. Batetik, urte guzti hauetan euskal presoek euskal herriratzea egia bihurtzen hasi dadin egindako lan guztiagatik, eta bestetik, Sarek antolatutako ekimen eta mobilizazioetan parte hartzeagatik. Zuei esker iritsi gara honaino.

Urriaren 8an Donostian, milaka eta milaka herritar batu ginen Izan Bidea dinamikaren baitako azken kilometroak osatu eta eginiko bideak ekarritako lorpenak balioan jartzeko. Sakanatik ere, dozenaka lagun gerturatu ginen

lehenik Donostiako kaleak koloreztatzea eta ondoren Ilunbeko jaialdira. Aldarria eta festa batuz, bultzada itzela eman genion guztion artean aurrera begira egiteko dugun bideari.

Orain, erronka berri baten aurrean gaude! Urriaren 8an bildutako indarrak hartu eta urtarrilaren 7ra begira jarriak gara. Izan ere, urte garrantzitsu baten hasieran kokatzen da aurtengo urtarrileko mobilizazioa; euskal presoek gehiengo zabala Euskal Herrian delarik amaituko dugu urtea. Egoera berri honek poza sorrarazten digu eta baita herri aktibazioaren eta kale aldarrikapenaren garrantzia eta balioa erakutsi ere. Horregatik, eta oraindik bidea egiteko geratzen zaigulako, urtarrilaren 7an Bilbon izatera gonbidatu nahi ditugu Sakanako herritar guztiak.

Euskal herriratzea urrats garrantzitsua izan arren, euskal

presoei oraindik ere etxeratze prozesua gauzatzeko traba eta oztopo ugari jasaten dituzte salbuespen legediaren ondorioz. Horren adibide dira gradu progresioen aurrean fiskaltza eta Audientzia Nazionala izaten ari diren jarrera atzerakoia. Hori hala, lanean jarraitzeko beharra ezinbestekoa dela uste dugu, euskal presoek ere dagokien etxeratze prozesua normaltasunez gauzatzeko unea baita.

Erronka berri honi guztiok batera ekin nahi diogu eta Sakanan ere horretarako lanean jarraituko dugu datozen aste eta hilabeteetan. Gutun honen bitartez, sakandar guztioi gurekin bat egin eta eskualdean antolatuko ditugun ekimenetan parte hartzeko deia luzatu nahi dizuegu, eta, nola ez, urtarrilaren 7an Bilboko kaleak betetzeko gonbita luzatu. Milesker eta animo, lortuko dugu!

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eu

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eu
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eu
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eu

Zuzentzailea:

Pabxi Flores Lazkoz

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eu

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eu
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eu

Maketatzailea:
lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eu

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eu

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eu

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernu



Hainbat euskaltzale elkartu ziren aurkezpenean. Eskuinetik hasita, Urko bigarrena, eta Erkuden, laugarrena.

"Euskarak bizi duen egoerak kezkatzen gaitu"

ERKUDEN ETA URKO ALTXA BURUA! SAKANAKO EUSKALTZALEON SAREKO KIDEAK lbarrean euskararen bilakaerarekin kezkatuta dauden hainbat sakandarrek osatu dute sarea. Talde irekian parte hartzeko euskaltzalea eta euskalduna izatea nahikoa da

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Sakandar euskaltzale guztiei ekimenarekin bat egiteko gonbidapena eginez aurkeztu du bere burua Altxa Burua! Sakanako Euskaltzaleen Sareak. Euskaltzaleak azaroaren 24an, ostegunarekin, 18:00etan, Arbizuko udaletxean eginen den bilkura irekira gonbidatu dituzte. Sare euskaltzale sortu berriko kide diren Erkuden Barandiaran Goñi eta Urko Aierbe Sarasola eragile berriaren aurkezpen prentsaurrekoan izan ziren.

Zerk eraman zaituzte sarea sortzera?

E. Euskaldun askoren moduan, kezkatuta gaude euskararen egoerarekin. Eta, horregatik, batez ere. Gainera, plazaratu dituzte kaleko erabileraren da-

"AURRERAPAUZOAK BAI, BAINA EUSKARAZ NORMALTASUNEZ BIZITZECO ZEREGIN HANDIA DAGO"

tuak, eta horrek gure kezka berretsi du. Ez da harrizkoa, euskaraz bizi ahal izateko egiturazko baldintzak gero eta zailagoak baitira Sakanan ere.

Zein da Sakanaren egoera?

U. Kale erabileraren datuak adierazle dira. Baina horretaz aparte, euskarak beste eremuetan bizi duen egoerak kezkatzen gaitu. Batetik, Nafarroako Gobernuaren menpeko zerbitzu publikoek ez dituzte euskaldunon hizkuntza eskubideak bermatzen, esaterako, osasun etxean edo

Foruzaingoan. Espainiako Gobernuaren menpekoek ezikusiarrena egiten digute guztiz. Lanbide Heziketan euskarazko eskaintza hutsaren hurrengo da, ikasle gehienak euskaradunak izan arren. Bestetik, Altsasuko Iortia kultur guneko programazioak oso leku txikia egiten die euskarazko ekoizpenei. Horrekin batera, kirolean gure haur eta gazteen entrenatzaileak euskaldunak ez izatea oraindik tamalez ez da salbuespena. Aldi berean, kanpotik etortzen diren pertsonen askotan ez diegu harrera egokia egiten, gure hizkuntzaren edo gure ohituren berri ematen. Gainera, udal gehienei eta Mankomunitateari ere, euskaldunoi egungoa baino arreta handiagoa ematea eskatu beharrean gaude. Egia da euskarak aurrerapausoak eman dituela Sakanan azkenengo urteetan. Oraindik ere zeregin handia badago Sakanan euskaraz normaltasunez bizi ahal izateko. Egiteko asko gaude.

Toki administrazioa aipatu duzue.

U. Aurten ere gure udalek Euskaraldiari atxikipena emango diotenez, argazki bat ateratzetik harago, euskararen eta euskaldunon aldeko benetako politikak gara ditzaten eskatu nahi genieke.

Zein dira zuen helburuak?

E. Euskaldunak euskaraz aritzeko erabakia hartzera bulkatu nahi ditugu. Horretaz aparte, gizarte esparru guztietan euskararen erabilera bermatzeko eta euskaldunon eskubideak errespetatuak izan daitezen ekintzak burutu nahi ditugu. Eta, oro har, euskararen erabilera sustatzea. Euskaraz bizi nahi dugulako zerbitzu publikoetan, merkataritza eta enpresetako zerbitzuetan, kirol jardueretan, kantuan eta dantzan, margotzean, etxean, kalean, pantaila guztietan, eskolan baita lantoki eta tabernetan ere.

Zeinek osatzen duzue sarea?

E. Edozeinek. Taldetxo bat bildu ginen, baina sarea osatzeko beharra ikusi genuen. Horregatik egin dugu deialdia. Edozein euskaltzale, euskaldun denak, parte har dezake. Denon beharra dugu.

"EUSKALTZALEAK ETA ERAGILE EUSKALTZALEAK SARETU NAHI DITUGU, AHALEGINAK BATU"

Guztion iritzia eta guztion ekarpenak behar ditugu.

Non biltzen zarete?

U. Erosotasunagatik Arbizun bildu izan gara, erdigunean dagoelako. Erkudenek esan bezala, gonbidapena berrestea. Edozeini irekia den eragile bat da. Ez da talde, subjektu edo bestelako eragileek egiten duten lana ordezkatzera datorren talde bat. Baizik eta izenean bertan dagoen sarearen kontzeptu hori jorratu nahi dugu. Euskaltzaleak eta eragile euskaltzaleak saretu nahi ditugu. Denon ahaleginak batu nahi ditugu, elkarrekin aurrerapausoak azkarrago emanen ditugulako.

Definitu dituzue sarearen egitekoak?

E. Guztiz ez. Baditugu helburu batzuk, baina definituta ez dago. Pausoz pauso joango gara egiten. Hutsuneak daude eta, beraz, hutsune horietan ekin nahi dugu, dudarik gabe; hor indarra egin nahi dugu. Baina guztiz definituta ez daude. Helburu batzuk ditugu. Esaterako, euskararen ezagutza izanik, jendeak erabil dezan bultzatzea. Eta, horretarako, baliabideak jarri behar dira. Baliabide horiek erraztuko ditugu, edo beste batzuei eskatuko diegu baliabideak erraztuz ditzaten. Pixka bat hortik joango da, segur aski. Baina hori denon artean erabakiko dugu. Euskara da gure ardatza, eta euskaldunon eskubideak bermatzea. Hori besterik ez dugu nahi.

Nola eragin ere zehazteko izanen duzue, beraz.

U. Finean, sareko kideek eta parte hartuko duten herritarrek, denon artean zehaztuko dugu zer egin. Pausoz pauso joango gara. Esan bezala, denon arteko konplizitatearekin, sinergiak eta aliantzak sortuz bultzada berri bat ematea Sakanan euskara normalizazioari. Eta, azken finean, ibilian-ibilian joango gara zehazten egitasmoa. Sakanan momentutan ikusten dizkiogun beharrei erantzuten joango gara. Denon artean.

Hurrengo hitzordua zehaztua duzue.

E. Bai. Bilkura irekia izango dugu azaroaren 24an, 18:00etan, Arbizuko udaletxean. Gure hizkuntza bizia eta bizirik nahi dugulako, sakandar euskaltzale guztiei luzatzen diegu ekimen honekin bat egiteko gonbidapena. Bestela, gurekin harremanetan jartzeko sakanakoEuskaltzaleak@gmail.com e-posta helbidea erabil daitezke.

3 ELIKAGAITIK IEK ZAKARRONTZIAN AMAITZEN DU

1 kg udare	2,74€	922 litro
1 kg patata	1,48€	287 litro
1 kg arroz	2,49€	2.497 litro
Dozena ½ arrautza	1,57€	1.176 litro
500 g legatz	11,03€	53 litro

**ALFERRIK GALTZEA,
GUZTIRA 6,44€ 1.645 litro***

*Elikagaien ekoizpenean alferrik
galtzen diren ur-litroak

Erosketak ez planifikatzea garesti ordaintzen dugu



Nafarroan elikagaiak
alferrik galtzea
murrizteko agenda
2022-2027



Joan urteko topaketa musukoak jantzita egin zen. TOKIKOM

Tokiko komunikazioaren aldeko hamarkada

GUAIXE FUNDAZIOA kide den Tokikomek, euskarazko tokiko hedabideen bateraguneak, bere hamargarren urteurrena ospatuko du gaur. Barrura begirako topaketa izanen da: ibilitako bidearen errepasoa, gogoetarako foroa eta Tokikom Sariak banatuko dira

SAKANA

Euskarazko tokiko hedabideetako langileek Arantzazun dugu gaur hitzordua. Gaur guretako hartu dugu eguna. ArantzazuLAB aretoan elkartzeko gara taldeko 28 bazkideen ordezkariak. Guztien artean 76 tokiko hedabide kudeatzen ditugu: 32 webgune, 28 aldizkari, 5 telebista eta 9 irrati, Euskal Herri osoko 297 udalerritara iristen direnak. 240 langile gara. Gu guztiok elkartzen gaituen Tokikom bateraguneak hamar urte bete ditu eta, jakina, ospatu beharra dago. Gaurko topaketak *Elkarrekin bidea egin*ez leloa du.

Azken urteetan udazkeneko topaketa bat egiten dugu Tokikomeko kideek, baina aurtengoan antolatutako ekitaldia barrura begirakoa izanen da, taldea osatzen duten bazkideen arteko harremanak landu eta hurrengo urteetako lana enfokatzeari begira. Hamargarren urteurrenaren ospakizun publikoa egiteko, Tokikom beste ekitaldi handiago

bat prestatzen ari da, 2023ko lehen hiru hilabeterako.

Tokikom komunikazio taldeak, urtero moduan, bere sari banaketa eginen du. Baina aurtengo sariketa desberdina izanen da, taldeak bere sorreraren 10. urteurrenarekin lotu nahi izan baitu. Horregatik, aurten Tokikom Sariak kazetaritza lanak saritu beharrean hamar urte hauetan nabarmendu diren tokiko komunikazio proiektuak sarituko ditu, "Tokikomeko bazkideen artean dagoen aniztasuna eta egiten den lan eskerga aldarrikatzeko asmoz".

Gehiago

Sari banaketaz aparte, Tokikomek taldearen hamarkada bateko

TOKIKOMEN GAURKO EKITALDIA BARRURA BEGIRAKOA IZANEN DA, PUBLIKOA 2023 HASIERAN EGINEN DA

historia laburbiltzen duen ikus-entzunezko lan bat mustuko du. Dokumental horretan euskarazko toki komunikabideak batzen dituen taldeak orain arte egindako ibilbidea kontatuko da, ibilbide horretan zuzenean parte hartutako lekukoen azalpenen bitartez.

Gaurko topaketan barne gogoetarako tartea ere izanen da, goizean zehar hainbat mahai inguru izango baitira. Haien bidez Tokikom komunikazio taldea osatzen duten tokiko hedabideen arteko iritzi trukea sustatu nahi da. Hausnarketa horren ardatzak izanen dira hedabideen sektoreak hurrengo urteetarako mahai gainean dituen erronkak: Tokikom beraren izaera eta funtzioa hurrengo urteetan, hedabideen finantzazioarekin lotutako erronkak, digitalizazioak dakartzen aukera berriak... Mahai inguru horietan, taldea osatzen duten hedabideen esperientziak eta espektatibak ere landuko dira.



Parlamentariak eta Aralarko ordezkariak santutegiaren alean. PARLAMENTUA

Santutegiko ostatua eta aterpea berritzeak 2,5 milioiko balioa du

Bi urtetan eginen lirateke lanak. Denda, harrera eta komuneko lanak abendurako despedituko dituzte

UHARTE ARAKIL

Nafarroako Parlamentuko Ekonomia eta Enpresa Garapenerako Batzordeko eta Kultura eta Kirol Batzordeko lau parlamentari Aralarko San Migel santutegian izan ziren asteartean. Joxe Mari Ustarroz Razkinek, Aralarko San Migel Kofradiako presidentea, Mikel Garciandia Goñik, santutegiko kapilauak eta Juan Carlos Recio, santutegiko proiektuaren zuzendariak egin zieten harrera. Hiru parlamentariak azaldu zieten esku artean duten proiektuaren nondik norakoak.

Santutegi ondoko eraikinei dagokienez, hurrengo fasean proiektuak ostatua birgaitzea aurreikusten du. 30 bat logela ditu. Horrekin batera, taberna eta jatetxearen azpian gazteendako aterpetxe bat egin nahi dute. "Gure ustez, urtean 78.000 bisitari jasotzen dituen santutegiak leku bat behar du jendea bertan geratzeko" azaldu zuen Recio. Parlamentariak jakinarazi zutenenez, lanek 2,5 milioi euroko aurrekontua dute eta bi fasetan eta bi urtetan eginen lirateke. Lanak egin ahal izateko, Aralarko San Migel Kofradiak parlamentariak eskatu die horretarako propio izanen den diru sail bat egotea Nafarroako aurrekontuetan.


Egindakoa

Parlamentariak santutegirako pasabidearen sarreran, ezkerretara, denda, komunak eta harrera hartuko dituen tokia ezagutu

zuten lehenik. Pasabidean aurrera egin eta beste muturreko atetik Lakuntzetxeko eraikinerara atera ziren. Haren berreraikitze lanak aurten despeditu dira. Parlamentariak haien inguruko xehetasunak ezagutzeko aukera izan zuten. Han, besteak beste, santutegiari buruzko museoa dago, lastailaren 16an atea zabaldutik zuten. Mikel Garciandia azaldu zuenez, "jasoa dagoen Aralarko aingeruaren irudien lehen irteera Iruñeko Katedralaren sagaratzera zela eta izan zen. Museoaren helburua eliztarren debozioa eta esperientzia transmititzeko bide izatea da".

Museoan bertan panel batek Inaziotar, Donejakue, Vera Cruz eta San Miguelen ibilbideak islatzen ditu. Hark balio izan zuen San Migelgo Gune eta Bideen Europako Sarea Europako Kontseiluaren kultur ibilbide gisa onartzeko eskaeraren berri emateko. Sare horren helburua da kultura, ondare monumentala eta erlijiosoa, turismo iraunkorra eta tokiko produktuak sustatzea. Ibilbide bihurtzeak aukera emango luke lekuak eta bideak egokitzeko eta sustatzeko Europako funtsen banaketan parte hartzeko. "Maiatzerako espero dugu Europaren erantzuna", azaldu zuen Garciandia.

Praktikan, Santiago eta Atlantikoko ertzaren arteko lotura sendotuko litzateke, eta, kokapen estrategikoa kontuan hartuta, San Migel santutegiari bultzada bat emango lioke, bideen lotura gune bihurtuko bailitzateke.



Plazako paretak berritu eta gainean hesi berria jarri dute.

Egindako lanekin Unanuko plazak itxura berria du

Paretetatik ateratzen zen urarekin zuten arazoa desagertu da. Herri sarrerako murrua konpontzen ari dira orain

UNANU

Goiko kalearen eta plazaren artean altuera handiko paretak handiak daude Unanun. Paretak ura izerditzen zuten eta putzuak sortzen zituzten plazan. Hori lehen zen, hori eragozteko Unanuko Kontzejuak lanak Iruen enpresari eman baitizkio. Aurreko asteetan izan dira kiskusileak lanean. Paretan isolatzaila jarri, hura harriz estali, plaza gaineko etxe parean lurreko porlana berritu, iturritik ura errazago edateko porlanezko koska bat egin, plaza ertzeko paretak berritu eta plazak zuen baranda kendu eta metalezkoa jarri dute. Azken horretan, herriko armarrak, bi eguzkilore eta bi lauburu daude. Lanek 30.000 euro inguruko aurrekontua izan dutela azaldu du Jesus Mari Balda Mercero, kontzejuko presidentea.

Kiskusileak hormigoi makina plazan zutela baliatuta, unanurerek lastail akaberako larunbat batean auzolana egin zuten. Ur ihesa zegoen tokian hura konpondu eta etorkizunean halakorik gertatuko balitz, errazago konpontzeko kutzatila bat egin zuten.

Bitartean, enpresa bereko kiskusileak herri sarreran dagoen eskola zaharren eraikinean ari da lanean. Eraikineko fatxadak txukunduko dituzte lehenik eta, hori egin ondoren, margotu egingo dituzte. Gainera, eraikinaren parean dagoen patioari eusten dion murrak zartadurak ditu eta haiek ere konpontzen ari dira

kiskusileak. Baldak jakinarazi duenez, elektrikaria noiz joan zain daude: "lehendik jarritako eta ezertarako balio ez duten kable zahartu asko dago, beste batzuk txintxililik daude. Behar ez direnak kendu eta gelditzen direnak txukun utzi nahi ditugu".

Lan horiek Herri berritze planaren bidez finantzatu dira. Ibarreko hiru kontzejuen premiatik sortu zen plana. Haiek ez dute ez baliabide teknikorik ezta ekonomikorik ere herrietan azpiegiturak hobetu edo inbertsioak egiteko. Bestetik, Ergoienako Udalak baliabide tekniko eta ekonomikoak ditu ibarrean proiektuak garatzeko, baina udalak ez du herrietako ekipamendu edo azpiegiturretan eskumenik, geroz, udalak zuzenean ezin du inbertsiorik egin herrietan. Lau aldeek adostutako planaren bidez udalak kontzeju bakoitzari 60.000 euro eman zien.

Errepidea

Unanura daraman NA-7102 errepideak 1.600 bat metroko luzera du. Bertako asfaltoan, hainbat tokitan, zartaduraz beteta dago. Aurreko urteetan Nafarroako Gobernuak Errepide Mantentze Zerbitzukoek zartadurak galipotaz estali dituzte. Baina aurtengo lehorreak eta beroak zartadurak handitu ditu. Hori dela eta foru administrazioak okerren zeuden bizpahiru zatiak konpontzea erabaki du. Langileek bi aste eman dute asfaltoa jaso, kaskailuzko oinarri eta asfalto berria jartzeko.

Estalpea eta eskola zenaren berritzea, bidean

Heldu den urteko udaberrirako despedituko dituzte plazako estalpeko lanak. Bestalde, eskola zaharren eraikina erabilera anitzetarako espazio bihurtzeko proiektuak Europatik dirulaguntza jaso du. Bi lanak udala zorpetu gabe egingen dira

ARBIZU

Joan den urteko martxoaren 14an herri galdeketa egin zen Arbizun eta herritarrek egoki jo zuten plazako frontoian estalpea jartzea. Gainera, proposatutako bi aukeren artean estalpe laukiaren alde egin zuten arbizuarrek. Udalak hura jasotzeko lanak emateko deialdia egin zuen aurtengo martxoan, baina beste hainbat herrietan bezala, lanak eman gabe gelditu ziren enpresek ez baitzuten eskaintzarik aurkeztu. Arbizuko Udalak jakinarazi duenez, "egoera aldatu eta enpresa bat prest dago obrari ekiteko eta datorren urteko udaberriari bukatuta egonen litzake". Gauzak ongi, udaberrirako estalpea eraikia izanen dela azaldu du udalak. Aurreko deialdian jaso zenez, bi hilabete eskas izanen ditu enpresa hartzaileak estalpea jasotzeko. Orduko lanen aurrekontua 123.412,48 eurokoa (BEZ kanpo) zen. Hori finantzatzeko, udalak, Cederna Garalurren



Estalpearen irudikapena. ARTXIBOA

bidez, Landa Garapenerako Funtsetik 50.000 euroko dirulaguntza eskuratu zuen. Horretaz aparte, pandemia garaian jasotako erabilera askeko dirulaguntzak, 63.000 euro, lan hori ordaintzeko bideratuko ditu udalak.

Bestalde, duela urtebete egingo dako parte hartze prozesu baten ondorioz, arbizuarrek erabaki zuten eskola zaharren eraikina erabilera anitzetarako espazio bihurtzea. Eraikinaren energia birgaitzea, barruko espazioen banaketa eta beste lan batzuk egingen direla aurreikusitako udalak. Ondoren han ikastaroak, tailerrak, hitzaldiak, erakusketak, proiektuak, kontzertuak eta beste hainbat ekintza eta bilera egiteko leku izanen da. Lanen finantziarioa lotzeko Arbizuko Udalak Europako funtsak banatuko dituen dirulaguntza deialdi batera aurkeztu zuen proiektua, baita 423.027,61 euroko laguntza jaso ere. Horrekin egin beharreko lan guztiak ordainduko dira, zorrik sortu gabe. Udalak jakinarazi duenez, "aurkeztutako proiektuaren kalitatea dela eta, zoriondu egin gaituzte". Lanak heldu den urtean egingen direla aurreikusitako Arbizuko Udalak.

Gazte alokairurako 26 etxebizitza eraikiko dira

Nasuvinsa enpresa publikoak halako 5 etxebizitza eraikiko ditu Arbizun eta beste 21 Altsasun

ARBIZU / ALTSASU

Nasuvinsa enpresa publikoarekin hitzarmen bana sinatuta dute Arbizuko eta Altsasuko udalek, hari utzitako lursailetan 35 urtetik beherako gazteei zuzendutako alokairuzko etxebizitzak egiteko. Arbizuko alkate Francisco Javier Razkin Floresek azaldu duenez, bi aldeetako arkitetkoak harremanetan daude eraikiko diren etxebizitzaren tipologia zehazteko. Antza, lanak udaberriari hasiko lirateke.

Altsasuko alkate Javier Ollo Martinezek azaldu duenez, "lehen

fasean Ualdera eta Amandrea kaleetan 21 etxebizitza eraikiko dira. L itxura duen eraikin bat izanen da. Eta lehen fasea bukatu eta gehienez ere bost urteko epean enpresak beste 21 etxebizitza eraikiko litzake". Ollok azaldu duenez, eraikinak 3 altuera izanen ditu eta solairu bakoitzean 60, 80 eta 90 m²-ko etxebizitzak izanen dira, bakoitza aparkalekurako bina plaza-ekin. Proiektua emateko ideia lehiaketa egin da. Bigarren faseko eraikinak beheko planta eta bi solairu izanen litzake.

Konponketengatik Plazaola bide berdearen zatia itxita

Latas eta Irurtzun arteko Plazaolako bidea azaroaren 2an itxi zuten eta hala egonen da asteartera arte. Kaxarnako pasabidetik aurrera konponketa lanak egingen ari dira. Eta bide berdearen ibilbidean askoz ere konponketa gehiago egingen dituzte hurrengo lau hilabeteetan. Horregatik, ibilbide guztian, aldian behin, zenbait tarte itxiko dira. 2021eko abenduko euriteek sortutako kalteak konpontzeko lanak dira egingen ari direnak. Hala jakinarazi du Arakil eta Irurtzungo udalak kide dituen Plazaola turismo partzuergoak. Haren web orriko berrien atalaren bidez jakin daiteke zein bide tarte dauden itxita.



Sukaldaritzari ikastaroko parte hartzaile bat. IRAÑETAKO UDALA

Gastronomia eta enologia ikastaroak antolatu ditu udalak

Sukaldaritzari buruzko jakintzak abendura arte eskuratzeko aukera dago. Bihar enologiakoa hasiko da

IRAÑETA

Irañetako Udalak sukaldaritzari ikastaroa antolatu du. Joan den ostegunean hasi zen ikastaroa Txapel Azpi elkartearen. Bederatzi irintar izan ziren elkarteeko sukaldetako suen inguruan errezetak ikasten aritu zirenak. Horiek talde bat osatzen dute eta ostegunero elkarteetako dira. Beste talde bat ere badago, asteartean elkartzeko dena. Horiek ikastaroko lehen saioa aste honetan izan dute. Beste bederatzi irintar daude talde horretan ere. Gastronomia arteetan trebatu nahi duten bi taldeen irakaslea

sukaldari irintar bat da. Hura arduratuko da 18 herritarrei sukaldaritzako jakintza berriak emateaz. Talde bakoitza seitan elkarteetako da eta abenduaren 20ko saioan guztiak elkarrekin ariko dira.

Horrekin batera, Irañetako Udalak ardo dastaketa antolatu du larunbaterako eta 26rako. 13 irintarrek eman dute izena ardoaren kulturaz gehiago ikasteko. Elkartearen, 11:00etatik, aurrera enologo baten ardoei buruzko azalpenak jasoko dituzte. Bai dastaketarako bai ikastarorako izen emateak itxita daude.

DUELA 25 URTE...



Ziza erakusketa Bakaikun

Lastail akaberako goiz batean egin zen erakusketa. Bakaikuarrek herriko basoan jasotako 84 ziza mota izan ziren ikusgai. Hala ere, eguraldi lehor eta euri faltagatik, 1997koa ez omen zen "onddo urtea" izan. Baina ziza guztiek ez zuten erakusketan bukatu. Lau emakumezko haiekako batzuk prestatu zituzten eta, esaterako, galanpernak arrautzekin, ogi mamiekin edo gaztarekin prestatu zituzten.

Hemen da zortzigarren Azarokotea

Azaroaren 14tik 26ra bitartean, Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen elkarteetako kide diren establezimenduetan erosita, 20 eta 50 euroko opari txartelak eskuratu daitezke. Guztira, 1.800 euro banatuko dira saritan

SAKANA

Eguberrien aurretik, Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen elkarteak Azarokotea kanpaina antolatzen du. Aurtengoa kanpaina horren 8. edizioa da. Eta harekin elkarte antolatzailerak Sakanako bezeroei eskerrak eman nahi dizkie hurbileko merkataritzari emandako babesarengatik. Hurrengo bi asteetan Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen elkartearen kide diren 56 establezimenduetakoren batean erosketa egiten dutenek erosketa bakoitzeko bere datuak dituen txartela bete beharko du. Jasotako txartel guztien artean hila azken astean zozketa egingen da. Jokoan 1.800 euro daude, 70 opari txartel baino gehiagotan banatuta. Batetik, 20 euroko 60 opari txartel eta, bestetik, 50 euroko 12 opari txartel.

Azarokotea Altsasuko Dendarien Elkarteak abiarazi zuen 2005. urtean. Baina 2015ean Sakanako Dendari, Ostalari eta



Urdaiazpikoa zozketatu zutenekoa.

Zerbitzuen elkartearen esku utzi zuen kanpaina, horrela, oihartzun askoz handiagoa lortuz. Bere ibilbidean Azarokotea kanpaina sariak aldatzen eta hainbat egoeratarako egokitzen joan da. Esaterako, Covid 19 gaitzaren pande-

miak ekarri zituen murrizketen eta itxieren ondorioz kaltetuenetarikoa ostalaritza sektorea izan zen. Hori dela eta, azken bi edizioetan saritutako bezeroek elkartera kideetako ostalaritza establezimenduetan trukatu zituzten euren sariak. Sariak, beraz, ostalaritzari laguntza eman eta babesa adierazteko erabili ziren.

Orain arteko edizioetan banatutako sariei dagokienez, 2015ean erosketa txartelak zozketatu beharrean, elkarte berriari atxikitako saltoki bakoitzak ekarritako produktuez betetako eguberri zare erraldoi bat oparitu zuen Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen elkarteak. Beste urte batzuetan, berriz, zozketatutako opariak ez ziren ez saskiak, ez elkarteetako saltokietan gastatzeko txartelak izan, kideetako harategietan erositako urdaiazpikoak baizik. Urte horietan, gutxienez, 125 urdaiazpiko zozketatu ziren.

Gaztainondoak eta landareak

Horiek ezagutzeko asmoz elkartu ziren 30 bat olaztiar domeka goizean. Beheko basoan dauden hainbat gaztainondo bisitatu zituzten ibilbidean zehar. Horretan Mikel Arresek gidatu zituen. Eta toki batetik bestera mugitzen ziren bitartean Cristinak eta Marisak ibiltariei hainbat sendabelarren ezaugarrien eta haiek hartzeko moduen berri eman zieten.



OLAZTI NATURA

FESTAK

IRURTZUN SAN MARTIN FESTAK

AZAROAK 11 Ostirala

Goizean Dianak.

11:30-14:00 Haurrendako parkea, plazan (euriarekin pilotalekuan).

14:00 Bazkaria, San Martin jubilatuen elkartearen.

Ondoren, dantzaldia.

16:30 Mus txapelketa, Iratxo elkartearen.

Izena ematea, 16:00ak baino lehen.

17:30 Erraldoien eta buruhandien konpartsa.

19:00 Haurrendako txokolate jana.

19:15 Diskofesta Xaibor taldearen eskutik, plazan.

21:30 Zezensuzkoa, plazan.

00:00-03:00 DJ emanaldia.

AZAROAK 12 Larunbata

Goizean Dianak.

12:30 Ortzadar taldearen Udazkeneko Plaza Dantza. Jauziak dantzatzera animatzen dute jendea, Gernika plazan (euriarekin Barazki Gunean).

18:30 Gozogintza lehiaketa eta dasataketa, Erga Larreak elkartearen.

19:00 Euskaraldia: Hitzez ekiteko garaia. Izena ematea, txapak banatzea, Euskaraldiaren dantza eta talde argazkia.

19:30-21:30/00:00-03:00 Diskofesta On-fiestarekin.

AZAROAK 13 Igandea

Goizean Dianak.

10:30-14:30 Artisau azoka, plazan (euriarekin pilotalekuan).

17:30 *Gezur GehiEgi* Txoroboro magoaren ikuskizuna, kultur etxean.

Irurtzungo Artisau azokan egonen diren artisauak

Jose Antonio Recalde zurgilea, Mieltxo Saralegi talogilea, Forjas Brun forjaketa, Arbeltz gaztak, Ines Flores Zurlan gozotutako haziak, Sojonatura ukenduak, Xorta garagardoak, Mañeko gozogintza, Oliparok Maixus Jau-regi kakorratza, Irantzu Legarra Josthari ehungintza, Amasuluk bitxigintza, Nekane Elustondo bisuteria eta kakorratza, Iker Pelegrin ehungintza, Aziz eta Maialen Puochinah ehungintza, Yazmin Azpiroz jostailuak, Leire Dorronsoro Urkia makramea, Pello Olea egurrezko jostailuak



Irurtzungo Artisau azoka. ARTXIBOA

eta zurgilea, Javier Ruiz de Egi- no ehungintza, Eva Fernandez egurrezko jostailuak eta Asier Peral Pozo anbientadoreak.

Gazteen pantailetan erdara nagusi

UEMAren azterlanaren ondorio nagusia da ikus-entzunezkoen euskarazko kontsumoa erdarazkoen oso azpitik dagoela, telebistan, streaming plataformetan, sare sozialetan eta bideo-jokoetan. Bide batez, ETB 3 Nafarroa osoan ikustea eskatu zuen

SAKANA

Arbizu eta Etxarri Aranazko udalak kide dituen Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) ordezkariak Nafarroako Parlamentuan gazteen ikus-entzunezkoen kontsumoari buruzko ikerketaren berri eman zuten. UEMako ordezkariak azaldu zuten, "eskola eta herri askotan kezka handia sumatu dugu ikus-entzunezkoen kontsumoak gaztetxoek hizkuntza ohituretan duen eraginagatik". Horregatik egin zuten ikerketa, ondoren neurriak hartu ahal izateko.

UEMAkoen iritziz, "egoera makurra da eta gaiari urgentziaz heldu behar zaio. Arlo estrategikoa da ikus-entzunezkoena, eta, beraz, hizkuntza politikaren ikuspegitik ezinbestekoa da benetako erabaki sendoak hartzea". LH4tik Batxilergoko 2. maila arteko 11.571 inkestek utzitako datuetako bat da %10,6k baino ez du ikusi euskaraz serie edo marrazki bizidunak, eta adinean gora doazen heinean jaitxi egiten da kopurua: batxilergoko ikasleen %3,1ek bakarrik ikusi ditu euskarazko serie edo marrazki-bizidunak. Lehen Hezkuntzan, marrazki bizidunak ikusteko Clan katera jotzen dute (%42,9) ETB3ra (%22,1) baino gehiago.



Gazteak telefono mugikorra eskuetan dutela. ARTXIBOA

Gaztetxoek pantailetan euskarazko presentzia handia izateko bederatzi neurri proposatu ditu UEMAk. Batetik, Nafarroa osoan ETB3 ikustea. Bestetik, RTVEk ardura bere gain hartu eta marrazki bizidunak euskaraz ematea. *Goazen* telesailaren moduko fikziozko eduki gehiago egoteko apustu sendoa ere eskatu du UEMAk. Plataformei dagokionez, "emandako pausoak areagotu eta arautu behar dira, ez dadin dena borondatearen esku geratu. Gainera, egindakoa gaztetxoei jakinarazi behar zaie, jakin de-

zaten, esaterako, Netflixen euskarazko edukiak daudela".

UEMAkoen iritziz gaztetxoek euskaraz bizi arren, sare sozialetan erdarara jotzen dute erreferente faltagatik. Horregatik eskatu dute sareetan, ikus-entzunezkoetan eta kultur arloan euskal sortzaileen aldeko apustua egitea. Horrekin batera, hizkuntza politikan gai horri "orain arte baino sendotasun handiagoz heltzeko" beharra azpimarratu zuten. Azkenik, ikus-entzunezkoetarako ikuspegia zehaztea eskatu zuten.

EGUN ON SAKANA



GOIZERO 10:00-12:00 | ERREPIKAPENAK 14:00

08:30 NAFARROAKO ALBISTEAK
EUSKALERRIA IRRATIAREN ESKUTIK

10:00 PRENTSA ETA EGURALDIA

10:15 BATETI BESTIA

10:20 EGUNEKO ALBISTEAK

10:45 HIZKETAN

11:15 SAREA: ARALAR ETA KARRAPE IRRATIKOEKIN

11:55 AGURRA

107.3 FM
beleixe
ONLINE WWW.GUAIXE.EUS



Iturmendiko herri eskolako komunitateko kideak. UTZITAKOA

"Eskolok lana ondo egitea guztion onurarako da"

LIERNI GALARRAGA LEKUONA SAKANAKO HERRI ESKOLEN KOORDINATZAILEA Ibarreko bederlatzi ikastetxe publikoek osatzen duten sareak jaso du Sakana aipamen berezia saria, sakandarren boto bidez erabakitako saria

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Iturmendi, Urdiain, Altsasu eta Olatzagutiko ikastetxe publikoak, Haur eta Lehen Hezkuntzako herri eskolak, dira Sakana aipamen berezia saria jaso dutenak. D eredu guztietan dago eta A eredu talde batzuk Irurtzunen eta Altsasun daude. Guztira 1.505 ikasle, 106 gela, 221 irakasle. **Zer dakar sariak?** Hautagai izatea ere sorpresa handia izan zen guretako. Hez-

kuntza eta eskola publikoa bizitzaren ari den egoera bizita, oso ondo datorren sari bat da. Gure eskolek, irakasleek eta zuzendariak ondo merezita daukaten saria da. Oso pozik gaude. **Sariak zer aitortzen dizue?**

"LANEAN ZAUDENEAN NORBAITEK ESATEA: "ANIMO, ONGI ARI ZARETE, SEGI", OSO ONDO DATOR"

Txalo egin digute eskolei eta eskoletan lan egiten dugun guztioi. Oso ondo dator beti lanean ari zarenean norbaitek esatea: "animo, ongi ari zarete, segi". Animoak ematen dizkigu. Ez da erraza. Euskara da gure erronka nagusietako bat. Sakanara bizitzera etortzen diren kanpoko ikasleek, hizkuntzarik gabe datozenak, askotan eskola publikoari tokatzen ari zaigu egoera horiei aurre egitea. Eta eskolarendako esfortzu eta lan handia da. Azkenean, sariarekin eta aitortza-

rekin gure lana gorai patzen da, eta oso-oso ondo datorkigu.

Erronka gehiago dituzue?

Orain dela urte batzuk estrategia plana egin genuen, eskola eta sare bezala zer lortu nahi genuen zehazteko: kalitatea kudeaketan eta ikasleei akademikoki kalitatea ematea; eskualdean txertatzea; ikasleek beraien inguruari balioa aitortzea, bertako hizkuntzari, kulturari, ondareari... Testuinguru hori dugu. Eta beti etengabeko prestakuntza, gure ikasleendako ikasteko modurik egokienak eta hoberenak zein diren jakiteko. Urtero kanpo frogak egiten dizkigute eta haien emaitzak aztertuz hobekuntza planak egiten dira eskoletan. Horren arabera irakasleendako prestakuntzak antolatzen ditugu. Beti ere ikasleen akademia maila hobetzen saiatzeko.

Elkarrekin sarea osatzen duzue?

Bai. Gure egiteko inportanteena, eta nirea bereziki, da eskolak elkar babestea eta laguntzea. Zuzendaritza talde batean sartzen diren berriak oso-oso eskertuta sentitzen dira, gainerako zuzendariengatik oso babestuta sentitzen dira. Momentu honetan, esate baterako, Hezkuntza Lege berriaren moldaketetan ari gara, programazioak eta moldatzen. Eta segituan ereduak partekatzen dira, norberak nola egin duen... Etengabeko mugimendua daukagu. Badauzkagu partekatutako datu basea eta unitateak, sare sozialetan elkarrekin egunero komunikatzen gara...

Noiz sortu zen sarea?

Duela 12 bat urte ikastaro bat egin zen, eta bi behar ikusi ziren: koordinazioa eta eskolen arteko komuneko proiektuak aurrera ateratzeko pertsona bat egotea. Orduan sortu zen Sakanako Herri Eskolak izena, eta pixkanaka hasi zen saretzen, txikitik handira joan zen.

Saretzean gurasoek zer paper dute?

Eskola guztietan daude guraso elkarrekin. Eskola kontseiluen beti daude ordezkatuta. Eskola bakoitzaren lan egiteko moduren arabera beti ateak zabaltzen dizkiegu parte hartzeko. Bederlatzi eskoletatik hiru ikas komu-

"ESTRATEGIA PLANA EGIN GENUEN, ESKOLA ETA SARE BEZALA ZER LORTU NAHI GENUEN ZEHAZTEKO"

nitateak dira eta haietan sistematizatu samar daude gurasoen parte hartzeak eskolan eta baita gelan ere. Sortzen elkarrekin ere lan egiten dugu. Harekin koordinatuta hainbat dinamika ditugu: eskolek euskararen inguruan dituzten erronkak, urteroko eskualdeko festaren antolaketa...

Sarea zertan dabil gaur egun?

Oso simplea badirudi ere, guretako oso inportantea da ibarreko ikasleek elkar ezagutzea, eta eskolek ekintzak elkarrekin antolatzea. Nire egitekoetako bat hori izaten da. Esate baterako, azaro bukaeran Lekarozera hiru eskoletakoak elkarrekin asteberako joanen dira. Hondakinen kudeaketari buruzko tailer batzuk bideratzen ari gara. Koskobiloko lezera irteera antolatzen ari gara ilbeltzerako-edo. Prestakuntzak egiten ari gara eskola txikietan, hainbat adinetako ikasleek elkarrekin baitaude. Lan egin eta denak irabazten ateratzeko hainbat lan antolaketa pentsatzen ari gara. Bestalde, Sakanako Enpresen Elkarrekin berdintasun foroan parte hartu dugu eta proposamenak egin ditugu. Herrien bizi iraupenerako eta familia eta lana uztartzen laguntzeko eskatu dugu: herrietan 0-3 zikloa indartzea, doakoa, edo ahalik eta kalitate eta modurik egokienean antolatzen saiatzea; kontziliaziorako jangela, zaintza zerbitzuak eta udalekuak... Ikusten ari gara familia asko herrietatik mugitzen dizkiela eskolak ezin dielako zerbitzu horiek eman. Ez dugu uste udalek behar adinako balioa ematen diotenik neurri horiek daukaten garrantziari. Neurri horietarako laguntza baten beharrenean ikusten ditugu familiak. Guraso elkarrekin eskutan uzten da zerbitzu horiek antolatzea. Eta uste dut herri bezala oso estrategikoak direla. **Eta etorkizunari begira?** Koordinazio planak 87 helburu ditu. Zuzendaritza berri bat sartzen bada eskolan beti behar izaten da laguntza gehixeago, eta hor erronkak mila izaten dira. **Zer egingen duzue sariarekin?** Hautagai izatea jada saria izan da. Lanean jarraituko dugu, egiten dugunean sinesten dugu. Hori bai, denon beharra daukagu: hedabideak, udalak eta gizarte osoarena. Azkenean, Sakanako haritz txikien mintegiak gara eskolak, eta guk lana ondo egitea guztion onurarako da.



Sakanako Sozioekonomia Behatokiak banatzen duen Sakana sari nagusia jaso du Bakaikuarrok herri kooperatibak.

Alfredo Alvaro Igoa BAKAIKU

Aurten 220 egun egon da Bakaiku dendarik gabe. Baten atea jubilazioagatik itxi ziren, bestearenak sortu berri den kooperatiba batek zabaldu ditu. Aintzane Gorrotxategi Onda, Nerea Viana Zugadi, Ernesto Leitza Urrestarazu, Erkuden Zornoza Arregi eta beste hainbat bakaikuarren lanak denda ekarri ziren lehenik, saria orain. **Sakana sari nagusia. Zer dakar horrek?**

Nerea. Aitortza handia da. Oraindik ibilbide txikia dugu, baina egin dugun lana aintzat hartu da; jendeak baloratu du. Oso pozik gaude.

Sariak zer aitortzen dizue?

Ernesto. Posible dela gauzak beste modu batean egitea. Eta gauzak ongi egin ditugula. Ez dakit askotan egiten ditugun, baina, orain honetan, ongi egin ditugu. Eta horrekin harro gaude.

Sariak zer eman dizue?

Erkuden. Aitortzak poza eman digu. Eta aurrera egiteko gogo gehiago eman dizkigu.

Zuen lanaren emaitza denda da. Lastailaren 6an zabaldu zituen atea. Zer moduzko harrera izan du?

Aintzane. Zazpi hilabete dendarik gabe egon ginen eta jendeak harrera oso ona egin dio, adin guztietakoak. Guretao oso eroso da. Eta adineko jendearndako are gehiago. Bakoitzak bere saskitxo hartzen du eta bere erosketak herrian egiten ditu.

Premia sumatzen zen?

N. Bai. Jendeak eskatzen zuen. Egunero galdetzen ziguten noiz

"Jendeak harrera oso ona egin dio dendarari"

AINTZANE, NEREA, ERNESTO ETA ERKUDEN BAKAIKUARROK HERRI KOOPERATIBA Sakana Sozioekonomia Behatokiak Sakana sari nagusia eman zion Bakaikuko denda sortu duen kooperatibari atzo

zabaldu behar zituen atea. Jendea oso ohituta zegoen herrian erostera. Dendarik ez izateak autoa hartu behar izatea, adinekoendako trabak... Jendea denda gogoz zegoen, bai.

Aurreko dendaria, Kontxik zer esan du dendaz?

Eo. Ni berarekin ez naiz egon. Edurnek, dendako langileak, esan zidan dendan egon zela. Pentsatzen dut gustatuko zitzaiola. Kontxik lan handia egin zuen, pentsatzen dut bizi osoa dendan lanean emanen zuela.

Denda hau berria da, kamara berriak eta dena berria eta oso polita dago. Kontxiren aholku batzuk jaso genituen. Berak zituen produktu batzuekin jarraitzen dugu. Nik uste ongi hartu duela.

"HERRI TXIKI BATEAN DENDA, DENDA BAT BAINO GEHIAGO DA, ELKARTZEKO TOKIA ERE BADA"

Langileek, dagoeneko, dendako martxa eta bakaikuarrak ezagutuko dituzte, ezta?

A. Bai. Beraiek oso atseginak dira eta jendearekin oso harreman ona dute. Hasieran zailagoa izaten da, baina lehenengo egunetik jendeak ongi hartu du, eta harreman oso ona dute.

Hilabete pasatxo honetan, zertan ez duzue asmatu?

Er. Hau ez da bi egunetarako egiten den zerbait, bere bizitza osoan zehar aldatzen joanen da. **Eta zertan asmatu duzue?**

N. Denda oso txukun dago. Oso ongi aprobetxatua. Argitsu da. **Eo.** Nik gehitu nahi dut langileak gozamina direla. Oso atseginak. Eta langileak gainera. Denda txiki batean hori oso garrantzitsua da. Herri txiki batean denda bat denda baino askoz gehiago da, elkartzeko toki bat ere bada. Eta horretan langileek garrantzi handia dute.

Gaur egun zenbaterik osatzen duzue kooperatiba?

Er. 150 bat bazkidek.

A. Nahi duenak izena emateko aukera du. Ongi etorria izanen da, kooperatibak herritarren babesa izatea eskatzen baitu. Zenbat eta jende gehiago orduan eta babes eta indar gehiago eduki dezakegu. Bazkide egiteko dendatik pasa edo gutakoren batekin harremanetan jarri eta horrekin nahiko da. Eta gogoia izatea.

Zer darabilzue esku artean gaur egun?

N. Ideiak baditugu. Baina lehenengo eta behin denda hobetzen ari gara. Jendeak eskatzen dituen produktu berriak sartzen ari gara. Esaterako, aldizkariak eta egunkariak ekartzea falta da oraindik. Jendeak Kontxiren dendan ohitura handia zuen. Hori eginen dugu. Eta martxa hartzen dugun heinean gauza berriak pentsatzen hasiko gara. Oraindik, poliki, arnas pixka bat hartu behar dugu. Eta denda pixka bat finkatu behar da.

Bakarren bat galdezka etorri zaizue?

Er. Bai, Ameskoatik talde bat etorri zen proiektua ezagutzera, beraiek antzeko zerbait egiteko edo, gutxienez, zer egin dugun jakiteko.

Zer eginen duzue sariarekin?

Eo. Estandarte handi batean jarriko dugu, kar, kar, kar. Modu xumean, baina ospatuko dugu. Pozik gaude jasotako sariarekin.





Langile bat ibarreko enpresa batean soldatzen. ARTXIBOA

Enpresetan berdintasun politikak ezartzeko estrategia abiarazi dute

Sakanako Enpresen Elkarteak antolatuta, Altsasuko lortia kultur guneak gaur 'Sakanako industrian berdintasunerako gunea foroa' hartuko du (egitaraua 19. orrian). Enpresetan genero berdintasuna garatzeko strategiaren berri emanen du

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA
2021-2027 Sakanako estrategia planean hainbat arlo hartzen ditu. Eta horietan genero berdintasunarekin zerikusia duten jarduerak daude jasota. Hori kontuan izanik, Sakanako Enpresen Elkarteak (SEE) ibarreko enpresetan emakumezko eta gizonezkoen arteko berdintasuna garatzeko estrategia landu du. Egoera zein den jakiteko joan den urtean diagnostia egin zuen, "eta ondorioz garrantzitsuena da Sakanako industria enpresetan emakume gutxi dagoela", azaldu du Laura Garcia Apesteguik, SEEko Giza Balia-bideen eta Berdintasun arduradunak. "Borobilduz, 140 enpresa inguruk 4.000 pertsonari ematen diete lana, eta horietatik 700 emakumeak dira. Emakumeak enplegu guztiaren %17 baino ez dira. Batez ere metalaren sek-

torearen pisu handiari zor zaio hori, enplegu guztiaren %70 inguru baita; oso sektore maskulinizatua izan da beti", gaineratu.

Diagnosiak datu argigarri gehiago utzi zituela jakinarazi du: Sakana generoko soldata arrakala handiena duen Nafarroako eskualdea da, %26, eta Nafarroako batez bestekoa, berriz, %22 da. Garciak jakinarazi duenez, diagnostiak agerian utzi zuen "enpresek berdintasunerako garrantzitsuak diren gaietan gabeziak dituztela. Besteak beste, berdintasun planak,

"BOROBILDUZ, 140 ENPRESETAKO 4.000 LANGILEETATIK 700 EMAKUMEAK DIRA, %17 BAINO EZ"

lanpostuetan berdintasunez eta parekidetasunez parte hartzea, emakumeak erantzukizuneko postuetan egotea, ordainsarien erregistroa, jazarpenaren aurkako protokoloa eta abar".

SEEko gerente Javier Artetxe Lopez de Aldak azaldu duenez, "bai enpresaren ikuspegitik, bai gizartearen ikuspegitik, desoreka hori zuzentzeko eta garapen orekatua eta iraunkorra ahalbidetzeko ekin beharko litzateke. Emakumeendako lan aukerarik eza hazkunderako oztopo bat da eta Sakanaren etorkizuna modu negatiboan baldintzatuko du". Gaineratu duenez, enpresetan genero berdintasuna lortzeko epe luzerako estrategia abiarazi dute. "Elkartea enpresek inkeratuz, berdintasunaren aldeko jarduerak bultzatuko dugu, eta berdintasunaren aldeko estrategia baten aldeko

lanean lagun dezaketenez beste eragile ekonomiko eta sozial batzuen lankidetzara bilatu dugu". Aitortu dute orain arte arlo horretan ez dutela lanik egin eta Sakanako Mankomunitatea eta Altsasuko Udala izan direla zer-bait egin dutenak.

Estrategia eta pausoak

Garciak azaldu duenez, bi helburu dituzte: "Sakanako industrian emakumeen presentzia handitzea eta enpresetan berdintasunaren aldeko jarduerak sustatzea". Horiek lortzeko hainbat neurri hartu dituzte kontuan: informatzea, kontzientziatzea eta sentsibilizatzea, "oso garrantzitsua hasierako etapetan batez ere"; enpresei aholkularitza tekniko eta espezializatua eskaintzea; enpresetan eta langile guztiendako berdintasunari buruzko prestakuntza sustatzea; enpresek lan egitea emakumeak hartzeko; industrian dauden enplegu aukerei buruzko informazioa ematea; industria lanbideen aldeko bokazioak hobetzea, eta abar.

Horretarako bi lantalde sortu dituzte. Batetik, Berdintasunerako Kabinete Teknikoa, SEEk eta enpresek (aurten Hydro, Magotteaux, Quesos La Vasco Navarra, Saprem eta Iberica de Suspensiones) osatutakoa. Bestetik, Industriako Berdintasunerako Mahaia gizarte arloko kideez osatua (Sakanako Garapen Agentzia, Cederna Garalur, Mank, Altsasuko Udala osatzen dute. Altsasu, Sakanako herri eskolak, Lanbide Heziketa institutua, Nafar Lansare, LAB eta SEE). Bi taldeak eratu dituzte eta heldu den urterako funtzionamendua, helburuak eta ekin-tza plana zehaztu zituztela azaldu du Artetxek. Argitu duenez, "2023an hasitako jarduerekin segituko dugu, eta beste jarduerak batzuk sartuko ditugu, esaterako, industriadako emakumeen lan poltsa bat, enpresendako berdintasunari buruzko urteko prestakuntza plana, ikastetxeak enpresetara joatea, berdintasunerako bigarren foroa, eta abar". Artetxek zehaztu due-

ENPRESEKIN ETA GIZARTE ERAGILEEKIN LANTALDE BANA EGIN DITUZTE; JARDUERA PLANA DUTE

nez, jarduera plana zehaztuta, lantaldeek bilerekin ilbeltza akaberan ekinen diote, zehaztutako jarduerak martxan jarri asmoz".

SEEk 2021ean diagnostikoa eta aurten estrategia egiteko Nafarroako Gobernuako Ekonomia Garapenerako Departamentuaren dirulaguntza jaso du, SGAREN bitartez eta Sakanako Estrategia Planaren jarduerak gisa. Garciak argitu duenez, "epe luzeko proiektua duenez, eta beharrezkoa duenez, etorkizunean ere dirulaguntzak beharko ditugu".

Hezkuntzarekin bilera heldu den astean

SEEko ordezkariak Maria Chivite Navascues lehendakariarekin eta Mikel Irujo Amezaga eta Carlos Gimeno Gurpegi kontseilariarekin elkartu ziren lastailaren 29an. Bileran ibarreko sozioekonomia garapen proiektuei buruzko informazioa trukatu zuten aldeek. Lanbide Heziketako institutuak enpresendako duen garrantzia azpimarratu zuten SEEkoek. Ikastetxean Sakanako industria sektore nagusia den industria metalurgikoaren adarretan profesionalen prestakuntza eskaintza izateko beharra nabarmendu zuten. Horretaz hizketatzeko bilera egingen dute elkartekoek eta Hezkuntza Departamentuko heldu den astean. Bilkuran digitalizazioaren eta berrikuntzaren erronkari aurre egiten lagunduko duen Dinabide moduko zentro bat izatearen garrantziaz hitz egin zuten. SEE Dinabide elkarteko kide da dagoeneko. Garciak eta Artetxek esan dutenez, "Dinabide paper garrantzitsua izan dezake eta ibarreko prestakuntza eskaintza hobetzen lagundu dezake. Baliabide horiek enpresek eta ikastetxeek aprobetxatu behar ditugu".

133 sakandar Iruñeko Harresien Lasterketan

ATLETISMOA Milaka korrikalarik hartu zuten parte proba ezagunean. Sakandarren maila txalotzekoa izan zen, Ruben Mendieta, Adur Senar, Sergio Garcia Eulate eta Aritz Munarriz Top-Tenean sailkatu baitziren. Etzi 57. Behobia Donostia dago jokoan

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Azaroaren 5ean Harresien Lasterketa jokatu zen, Gotorlekuan barrena iluntzean jokatzen den lasterketa ezaguna, Iruñean giro berezia sortzen duena. Gezurra badirudi ere, urtetik urtera indartsuago jarraitzen du lasterketak; aurten 5.491 korrikalari zeuden izena emanda. Sakandar askok korrika egiten dutela jakina da, eta zifrak horren erakusle dira: 133 sakandarrek lortu zuten Harresien Lasterketa despeditzea. Nabarmenezkoa da, gainera, sekulako maila eskaini zutela, lau sakandar Top-10ean edo lehenengo 10 postuetan sartu baitziren.



Erkuden Andonegi eta Gaizka Martinez de Albeniz, Harresien Lasterketan. EDUARDO BUXENS

Forteko lasterketan (5,5 km) 1.318 korrikalari sailkatu ziren eta Tres Cantosko David de Blas (17:04) eta Antsoingo Maria Velazquez (20:10) izan ziren azkarrenak. Ruben Mendieta olaztiarra zazpigarren sailkatu zen (17:45) eta Adur Senar lakuntzarrak bederatzigarren (18:14). Emakumezkoetan Amaia Aristu olaztiarra izan zen lehen sakandarra (26:44).

Gotorlekuko lasterketak (10,5 km) partaidetza handiena izan zuten, 2.328 korrikalarik osatu baitzuten. Andoni Acebedo (32:10) eta Ana Llorens iruindarrak (36:48) izan ziren azkarrenak. Sergio Garcia de Eulate altsuarra Top-Tenean sartu zen, seigarren postuan iritsi baitzen helmugara (35:02). Emakumezkoetan Marta Irañeta izan zen lehen sakandarra (46:09).

Harresien lasterketa (15,9 km) 592 korrikalarik despeditu zuten, Caparrosoko Miguel Angel Hernandez (54:58) eta Uharteko Iruñeko Henar Etxeberria (1:00:53) buru zirela. Aritz Munarriz etxarriarrak sekulako lasterketa egin zuen eta zortzigarren sartu zen (57:21). Emakumezko-

tan Itziar Retegi uharte arakildarra izan zen lehen sakandarra (1:14:20).

Bukatzean, 271 korrikalarik despeditu zuten Baluarte Lasterketa (21 km). Txomin Osoro eibartarra (1:13:15) eta Edurne Irureta erreteriarra (1:32:14) izan ziren txapeldunak. Jose Ignacio Mikeo lakuntzarrak izan zen lehen sakandarra (1:22:52). Emakumezkoetan ez zen sakandarririk sailkatu.

Igandean, 57. Behobia-Donostia Harresien Lasterketa igandean jokatuko den 57. Behobia-Donostia lasterketa ezaguna (20 km) prestatzeko proba egokia da, eta asko helburu horrekin lehiatu ziren Iruñean. Aurtengo Behobia-Donostian 29.732 korrikalari daude izena emanda, Fortuna klubak azaldu duenez. Lasterketa igandean 9:30ean hasiko da, pertsona ezinduen irteerarekin. 9:35ean irristalarien txanda izango da eta segidan korrikalariena, txandaka.

Joan zen urtean 56 sakandarrek osatu zuten proba eta Asier Estarriaga eta Erkuden San Martin izan ziren azkarrenak.

Sakandarrak Iruñeko Harresien Lasterketan

Kirol Bat Triatloi Taldeak azaroaren 5ean antolatutako Iruñeko Harresien Lasterketan parte hartu zuten korrikalari sakandarren zerrenda.

Forteko Lasterketa (5,5 km)

• Gizonak	
1. David de Blas	17:05
7. Ruben Mendieta	17:45
9. Adur Senar	18:14
32. Ruben Izko	20:43
35. Isidro Asurabarrena	20:49
37. Juan Luis Maiza	20:53
48. Javier Borrega	21:34
52. Aimar Apaolaza	21:45
68. Iurgi Flores	22:29
97. Miguel A. Asurabarrena	23:21
169. Imanol Apaolaza	25:52
183. Eñaut S. Vicente	26:09
196. Iraitz Ariz	26:26
198. Juanjo Otsoa	26:30
561. Ignacio Alzuart	31:52
594. Borja Imaz	32:21
895. Asier Leiza	34:51
• Emakumeak	
21. Maria Velazquez	20:10
208. Amaia Aristu	26:44
279. Idoia Granizo	28:21
385. Maite Caro	29:46
389. Elena del Valle	29:51
438. Miren Rabaz	30:40

534. Eider Mazkieran	31:32
563. Mirena Cristobal	31:51
593. Ainhoa Corcuera	32:21
624. Olaia Macia	32:37
625. Madi Lizarraga	32:37
636. Irati Ollakarizketa	32:44
683. Estibx Ollakarizketa	33:04
849. Holoiz Etxeberria	34:27
894. Idoia Ruiz de Alegria	34:50
987. Nerea Troitiño	35:38
1060. Amaia Viana	36:19
1062. Ainara Salgado Galan	36:21
1065. Ainara Salgado Gomez	36:24
1166. Ainara Orabengoa	37:59
1168. Garbiñe Arguelles	37:59
1171. Ane Arregi	38:00

Gotorlekuko lasterketa (10,5 km)

• Gizonak	
1. Andoni Acebedo	32:10
6. Sergio Garcia de Eulate	35:02
20. Felix Benjumea	37:35
100. Iñaki Rayo	41:21
106. Fidel Jimenez	41:35
114. Fran Araña	41:49
118. Gaizka Angulo	41:55
134. Jon Navarro	42:26
158. Axier Larrion	42:58
175. Urko Rekalde	43:34
205. Juan C. Villalobos	44:09
226. Jorge Iradi	44:27
244. Ion Ollo	44:37

271. Kepa Gordo	45:04
287. Gorka Elizalde	45:18
315. Ioni Araña	45:52
399. Eugeni Etxarte	47:07
406. Juan Pedro Ariz	47:11
408. Xabier Aierdi	47:14
421. Iñaki Razkin	47:26
454. Eduardo Goya	47:49
498. Ruben Llamas	48:13
511. Primi Bakaikoa	48:16
556. Alain Azkona	48:41
593. Oihan Vinagre	49:08
596. Ioseba Fernandez	49:08
639. Mikel Senar	49:34
680. Aitor Salinas	49:54
736. Borja Peinado	50:27
737. Alvaro Legarra	50:27
742. Jose Jav. Rekalde	50:32
745. Luis Mari Malo	50:32
764. Miguel Navarro	50:40
810. Jesus Bengoetxea	51:00
822. Imanol San Miguel	51:08
844. Alberto Salgado	51:22
1029. Santi Agirre	52:51
1076. Jose Angel Maiza	53:27
1110. Jorge Troitiño	53:56
1214. Xabier Razkin	54:59
1319. Aitor Ekiza	55:56
1376. Egoitz Carrion	56:31
1419. Gaizka Huarte	56:55
1420. Jose Antonio Lahoz	56:57
1644. Oscar Alonso	59:01
1815. Antonio Fontelles	1:00:42
1852. Ariz Razkin	1:01:02
1986. Raul Camuel	1:02:51

2186. Adrian Cerezo	1:06:18
2237. Gonzalo Garcia	1:07:30
2264. Juan C. Mogollon	1:08:39

• Emakumeak

12. Ana Llorens	36:48
333. Marta Irañeta	46:09
627. Leticia Alvarez	49:27
645. Elena Guzman	49:36
657. Leire Mujika	49:41
677. Joana Senar	49:54
703. Maialen Aramendia	50:09
839. Maialen Unanua	51:18
847. Norma Legarra	51:24
1216. Ariane Razkin	55:00
1250. Izaro Goikoetxea	55:23
1330. Maitane Alzueta	56:01
1417. Amaia Arangiz	56:53
1421. Ana Isabel Angulo	56:57
1447. Leire Mateos	57:05
1585. Laura Iñigo	58:18
1645. Iosune Zubieta	59:01
1662. Maite Duran	59:15
1705. Eider Jaka	59:33
1804. Edurne Razkin	1:00:35
1819. Sonia Peris	1:00:43
1873. Iñintza Nuñez	1:01:15
2055. Ana Razkin	1:03:56
2288. Marta Fernandez	1:09:59

Harresien lasterketa (15,9 km)

• Gizonak	
1. Miguel Angel Hernandez	54:58

8. Aritz Munarriz	57:21
18. Aritz Pellejero	59:32
30. Asier Pellejero	1:02:13
36. Jose Jav. Beregaña	1:03:02
40. Joseba Galarza	1:03:40
56. Patxi Rubio	1:05:12
68. Mikel Goikoetxea	1:05:49
110. Jon Ander Fernandez	1:08:18
147. Jon Lapuente	1:10:26
153. Gaizka Mtz. De Albeniz	1:10:50
174. Goyo Rodriguez	1:11:39
184. Xabier Manero	1:12:02
439. Karlos Alonso	1:25:44
467. Josu Jaka	1:27:12

• Emakumeak

24. Henar Etxeberria	1:00:53
235. Itziar Retegi	1:14:20
289. Raquel Sanchez	1:17:08
290. Maria Goikoetxea	1:17:09
312. Leire Maiza	1:17:57
466. Sarabe Arakama	1:27:09
482. Erkuden Andonegi	1:28:35

Baluarte Lasterketa (21 km)

• Gizonak	
1. Txomin Osoro	1:13:15
30. Jose Ignacio Mikeo	1:22:50
99. Iñigo Rekalde	1:33:09
103. Iosu Urriza	1:33:34

• Emakumeak	
90. Edurne Irureta	1:32:14

Maidar Betelu Ganboa ITURMENDI

Aurtengoa denboraldi oso gogorra izan da Rural Kutxa-Seguros RGA taldeko Josu Etxeberria Azpilikueta txirrindulari iturmendiarrarendako. UCI Pro Team mailan progresioan jarraitzea zen bere helburua eta gogotsu ekin zion denboraldiari, baina ekainaren 4an Ronde de l'Oïsen eroriko larria izan zuen: bizkarrezurreko lau orno apurtu zituen. Sinestezina bada ere, hiru hilabete ondoren Luxemburgeko Itzulian bizikletara igo zen eta orain 2023an du burua, profesional mailan beste pauso bat aurrera eman nahi duelako.

Rural Kutxa-Seguros RGA taldeak Jon Barrenetxeari, Jokin Murgialdairi eta zuri kontratuak berriro dizkizute. Datorren urtean hirugarren urtea egingo duzu UCI Pro Team mailako taldean. Berri ona, ezta?

Bai, oso pozik nago. Aurtengoa ez da urte erraza izan. Lesio larriaren ondoren taldean jarraitzeko aukera eman didate, nigan konfiantza duten seinale, eta alde horretatik ere oso kontentu nago. **Aurten gustura ekin zenion denboraldiari, sentsazio onekin, profesional mailan pausoa eman eta progresioa izateko helburuarekin. Ilusio handia zenuen.**

Bai. Gogotsu nengoen, eta erorketa izan baino lehen ongi sentitzen nintzen. Nahi nuen tokian nengoen, kategoriari ia erabat egokituta. Mallorcako Challengean, Portugalgo klasiko batean, Frantzia, Grezia, Turkian... gustura aritu nintzen.

Espainiako Vueltarako gonbidapena ez jasotzea kolpe latza izan zen zuen taldearendako.

Hasieratik zuzendariak eta taldeko arduradunak oso urduri zeuden kontu honekin. Hasierako kontzentrazioetik nabaritzen zen urduritasuna, eta erabakia iritsi zen. Azkenean, Vueltan ez dago talde guztiendako tokirik, eta aurten kanpo geratzea egokitu zitzaigun. Formazioa da gakoa, eta, beraz, aurrera.

Ekainaren 4an Ronde de l'Oïsen eroriko larria izan zenuen. Zer gertatu zen?

Gure kirola arriskutsua da. Bizikleta gainean geroz eta azkarrago joaten gara eta erorketak jokoaren zati dira, baina egia esan batzuk oso arriskutsuak dira. Frantziako lasterketak oso urdukiak dira. Azken finean, despiste bat izan zen. Lurrera erori nintzen, frantziar batekin, baina asfaltora erori beharrean ezpona batera

"Lau orno apurtuta aurten bueltatzea ez zegoen inoren plangintzan"

JOSU ETXEBERRIA AZPILIKUETA RURAL KUTXA-SEGUROS RGA TALDEKO TXIRRINDULARIA
TXIRRINDULARITZA Txirrindulari profesional iturmendiarrak lesio gogorra gainditu du. Kontratua berriro, 2023an beste pauso bat egin nahi du aurrera



Aurtengo denboraldia oso gogorra izan da Etxeberriarendako. MICHAËL GILSON / DIRECTVELO

erori nintzen, bizkarrez. Eta kolpe larria hartu zuen.

Bizkarrezurreko lau orno apurtu zitzaizkizun eta berehala ebakuntza egin behar izan zizuten, Frantzia bertan. Ebakuntza larria izango zen. Ni momentu hartan ez nintzen neukanaz jabetu. Mina nuela bai, baina gutxi gehiago. Susto handia izan zen, erorketa batek zure bizitza guztia alda dezakeela jabetzen baitzara.

Momentuan oinez ibiltzeko gaitasuna gal zenezakeela pasa al zitzaizun burutik?

Ez, hori ez, istripuaren ondoren nire kabuz altxatu nintzelako. Alde horretatik lasai nengoen, baina egia da burutik pasa zitzaidala pixka bat gehiago eta hor gera nintzekeela. Susto handia hartu nuen, zinez. Hurrengo egunean ebakuntza egin zidaten. **Zenbat denbora egon zinen Frantzia osatzen?**

Guztira 10 egun. Aireportura ambulanzian eraman ninduten, eta hegazkinez etxera etorri nintzen.

Nola izan zen ebakuntza ondoko osatze prozesua? Mingarria? Ebakuntza ondotik oinaze handiak izan nituen. Sekulako mina,

"MEDIKUEK ESAN ZUTEN HIRU HILABETE GELDIRIK EGON BEHAR NUELA. BAI, IA! PENTSATU NUEN"

ezin nuen lorik egin. Ezin postura hartu, lo egitea ezinezkoa zen. Bizkarrean presio handia nabaritzen nuen, eta oinaze handia. Egia esan, gaizki pasatu nuen ebakuntzaren ondoren. Baina pixkanaka oinazeak pasatzen hasi ziren eta hobea.

Zer zioten medikuek?

Medikuek esan zidaten hiru hilabete geldirik egon beharra nuela, ezer egin gabe, eta gero errehabilitazioarekin hasiko nintzela. Hiru hilabete geldirik egon behar nuela entzun nuenean pentsatu nuen: bai, ia! Nire kabuz, pixkanaka mugitzen hasi nintzen, egunero pixka bat gehiago, eta gorputzak ongi erantzuten zuenez, aurrera egin nuen. Jose Vilarriño fisioterapeuta altsasuarrak hasieratik esan zidan lesioa konponduko zela, mugitzen hasteko azkartuko zela. Mugitzen hasi, eta geroz eta hobeki ikusi nuen nire burua.

Medikuen pautak hiru hilabete geldirik egotea zen. Zure kabuz mugitzen hastea erabaki zenuen, apustu handia egin zenuen. Kiro-lariak beste molde batekoak al zarete?

Gaztea naiz eta osatze prozesuan hori garrantzitsua da. Agian 40 urte izango banitu ez nintzateke horren azkar mugitzen hasiko. Bestalde, kirolari baten gorputza, agian, azkarrago senda daiteke. Nik argi nuen pixkanaka mugitzen hasiko nintzela gorputzak kitto esan arte. Gorabeherak izan nituen, baina gorputzak ongi hartu zituen nire saiakerak. Helburu txikiak jartzen nituen: lehen egunean pasilloari buelta bat ematea, gero kilometro bat egitea, hurrengo egunean bi, gero hiru... halakoak, eta zortea izan nuen, gorputzak ongi erantzuten zidalako. Hori ezinbestekoa izan zen, konfiantza eman zidalako.

Vilarriorekin saio asko egingo zenuen.

Bai, astean hiru aldiz elkartzen ginen. Laguntza handia izan zen. **Kontratuaren inguruko presioak sentitzen zenuen? Hau da, denboraldi guztia galduz gero kontratua ez berritzearen beldurra?**

Ez, horretan ez nuen pentsatzen. Lasai nengoen, lesioaren aurretik nuen maila erakusten ari nintzelako. Momentu horretan ongi nengoen eta taldeak ikusi zuen. Berritzearen ez ninduen kezkatzen. Kontrakoa. Une batzuetan pentsatu nuen agian honek ez zuela horrenbeste ahalgintza merezi. Baina zalantza

une horiek ere pasa ziren. Gertatutakoa lasai hartu nuen eta osatzen nintzen bitartean udaz disfrutatu nahi izan nuen. Izan ere, halako udarik ez baitut izan, nolabait esanda "oporretan" nagoela, beti lasterketetan bainago. Beraz, udaz disfrutatu nuen, lagunekin egon nintzen, eta geldialdi hori bizitzea ere ongi etorri zitzaidan. Eta denboraldi bukaeran bizikletara igo eta kapitulua itxi nuen.

Istripua gertatu eta hiru hilabetera Luxemburgeko Itzulian parte hartu zenuen. Sinestezina da, guztiz. Noiz ateratu zinen lehenengo aldiz bizikletarekin entrenatzera?

Hasieran errodilloan hasi nintzen, ebakuntzatik 20 egunera. Eta ikusi nuenean errepidean ez nuela arazorik izango, istripua izan eta hilabete eta erdira ateratu nintzen bizikletarekin kalera. 60 kilometro inguru egin nituen, eta oso gustura sentitu nintzen. Errespetu handiz ateratu nintzen, hori bai, ezin nuelako beste erorketa bat izan. Alde horretatik beldur pixka bat nuen.

Nola erabaki zenuen lasterketetara bueltatzeko moduan zeundela?

Geroz eta gehiago entrenatzen nuen. Nire maila fisikoa oraindik ez zen apartekoa, baina ongi nengibilen, bide onean. Abuztu erdialdean ia-ia normal sentitzen nintzen eta orduan erabaki nuen lasterketetan aritzeko moduan nengoela, probatzeko moduan. Medikuarekin hitz egin nuen eta ikusi nindueanean esan zidan sinestezina zela, istripua gertatu eta bi hilabete eta erdira horrela egotea ez zegoela inoren planetan. Egia esan, nirean ezta ere. Eta baiezkoa eman zidan. Zuzendariaekin hitz egin nuen eta esan zidan argi banuen, probatzeko. Horrela, Luxemburgeko Itzulira joatea erabaki genuen. Presiorik gabe aritzeko esan zidaten, ahal nuena edo nahi nuena egiteko. Eta gustura aritu nintzen. Taldeari beti ongi etortzen zaio baja bat berreskuratzea, eta ni fresko nengoen mentalki baita fisikoki ere. Beraz, guztiendako ongi.

Berriro diotsut. Lau orno apurtu eta hiru hilabetetan lehiari egotea, harriarria da.

Bai (kar, kar...). Denak harritu ziren. Ni neu nire buruarekin ere harritu nintzen. Egunero hobekuntza bat izaten nuen. Gorputzak ondo erantzuten zuen eta zorte hori izan nuen. Egia da lan asko egin nuela ongi egoteko, baina azkenean gorputzak ongi



Josu Etxeberria Azpilikueta beste urte baterako luzatu dio kontratua Rural Kutxa-Seguros RGA UCI Pro Team mailako taldeak. MICHAËL GILSON / DIRECTVELO

erantzuten zuelako egin nuen aurrera. Nik ere ez nuen espero horren denbora laburrean osatzea. **Lasterketan ohi baino kontu handiagoarekin aritu al zinen? Aldaketaren bat nabaritu al duzu?**

Ez. Konfiantza handiarekin eta ziurtasun handiarekin aritu nintzen nire itzuleran. Ez nuen pentsamendu edo sentsazio txarrik izan. Sarritan halako erorikoen ondotik blokeoak izaten ditugu txirrindulariok, nolabaiteko shockak, bai entrenatzen edo lasterketetan gaudela, erorikoa gogoratu eta ezinean gelditu, esaterako, baina ez nuen halako pentsamendurik izan eta alde horretatik ere oso pozik nago. Ez dut beldur sentsaziorik izan.

Halako erorketaren ondoren osatzea eta denboraldia bizikleta gainean bukatzea, inolako blokeo sentsaziorik gabe, satisfazio handia izango da.

Guztiz. Gertatu zitzaidan guztia alde positibotik hartu nuen eta pentsatzen dut horrek ere lagundu izan didala. Baikor izaten saiatu nintzen, baina oraindik zerbait gelditzen da hor azpian, errespetu handia baitiet erorke-

"MUGITZEN HASI NINTZEN, EGUNERO HELBURU BAT JARRITA. GORPUTZAK ONGI ERANTZUN ZUEN"



Istripu ondoko lehen pedalkadak, etxeko errodilloan. UTZITAKOIA



Josu Etxeberriaren bizkarra. UTZITAKOIA

te. Ez dakit nola izango den nire hurrengo erorketa, baina, beno... **Txirrindulariek normalean urriaren erdialdetik aurrera atseden hartzen duzue eta azaroan hasten zarete entrenatzen. Zure denboraldia berezia izan denez, zu ere atseden hartzen ari zara edo normal entrenatzen ari zara?**

Udan geldialdia egin nuenez, denboraldi bukaeran ongi nengoen, mentalki baita fisikoki ere, eta ez nuen geratzeko beharrik izan. Hortaz, normal jarraitu dut. Agian ez dut entrenamendu espezifikoa ez oso zorrotzik egin, baina bizikletan aktibo mantendu naiz.

Berehala hasiko zarete denboraldia prestatzeko kontzentrazioekin.

Azaroaren erdialdean hiru egunetako kontzentrazioa egingo dugu, taldekideak ezagutu eta datorren urteko denboraldia prestatzen hasteko. Ilbeltzean beste kontzentrazio bat izaten dugu, baina hor topera ibiltzen gara entrenatzen, berehala denboraldia hasten baita. Kontuak ateratzen hasita, bi hilabete eta erdi eskas ditugu hasteko, denboraldi bat bukatu bezain pronto

"MEDIKUAK IKUSI NINDUEANEAN ESAN ZIDAN EZINEZKOA ZELA, HORRELA EGOTEA EZ ZUELA INORK ESPERO"

bestea hasten baita. Eskerrak ez naizen ziklo-krosean aritzen, bestela dena jarraian litzateke. **Hurrengo denboraldian zer espero duzu?**

Gogotsu nago, konfiantzarekin. Aurreko denboraldiko prozesua aurrera eramanez, pauso bat gehiago ematea nahiko nuke. Nik uste dut beste pauso hori emateko prest nagoela; ea noraino irits gaitzkeen. Ahal den gehiena, beti.

Denboraldi txarrari alde onena ere ateratu diozu, eta pentsatzekoa da honek guztiak zure heldutasunean ere eragina izan duela, onerako. Ea datorren denboraldian zortea lagun duzun.

Eskerririk asko!



Asier Galarza, gorritz. NAFARROAKO FEDERAZIOA

PALETA GOMA Asier Galartza, Nafarroako txapelduna

Aurreko larunbatean Nafarroako Kluben Arteko Bost eta Erdiko Paleta Goma Txapelketako finalak jokatu ziren Iruñeko Labrit pilotalekuan, buruz burukoak. Bigarren mailako Buruz Buruko Paleta Goma finalean Asier Galarza Iriarte palista irurtzundarrak (San Juan) bere klubeko taldekide Urtasun Erburu (San Juan) izan zuen aurkari. Partida borrokatuan, azkenean Asier Galartza gailendu zen, 25 eta 16, eta irurtzundarra Bigarren mailako Paleta Gomako txapelduna da. Asier Galarza, palista bikaina izateaz gain, frontenisean ere txapeldun handia da. 2021ean Nafarroako Binakako Frontenis Txapelketako txapeldunordea izan zen.

Lehen garaipena bikain etorri zaie derbirako

ARETO FUTBOLA Osasuna Magna Xotak Ribera Navarra talde tuterarra hartuko du ostiralean Anaitasunan. Sailkapenaren azpian daude bi taldeak, baina lehen garaipena lortuta talde berdea animatuta dago eta derbi bizia espero da

Maidar Betelu Ganboa IRURTZUN

Kostata, baina iritsi zen. Osasuna Magna Xotak 1 eta 2 irabazi zion Levanteri azken jardunaldian eta lehen garaipena lortuta, mamuak uxatu eta gora begiratzeko garaia iritsi zaio talde irurtzundarrari. Sailkapenean jaitsiera postuetan jarraitzen du Xotak, hamabosgarren postuan, (6 puntu), baina gora begira.

Garaipen horrek airea eman die; hori nabarmendu du Imanol Arregik. "Garaipen oso garrantzitsua izan da guretako, eta aurrera egiteko oso ongi etorriko zaigu. Jokalariengatik pozten naiz bereziki, dena ematen ari direlako, baina orain arte lehiketa ez da justua izan. Ea garaipekin berrindartzen gaituen".

Derbirako gogotsu

Lehen garaipenak Osasuna Magna Xotako areto futbolarien animoan eragin zuzena izan du. Gaur, ostirala, 20:00etan talde berdeak arerio berezia hartuko



Jokalari berdeek zaleen babesa eskatu dute. XOTA

du: Ribera Navarra talde tuterarra. Derbiak beti bereziak dira, baina halako partidetarari ongi iristea oso garrantzitsua da eta Imanol Arregiren mutirik "oso gogotsu" daude. Derbiaren aurreko astea ere berezia izaten

da, elkarriketa gehiago eta mugimendu handiagoa izan baitute. Bi taldeak antzeko egoeran daude, azkeneko postuetan, eta, beraz, ohorea baino gehiago dute jokoan, hiru puntuak ezinbestekoak baitira bi taldeendako.

Sakandarrak lehiari

Sakana Igeriketa Taldeko 8 igerilari lehiatu ziren Nafarroako Kirol Jokoen Kimuen Igeriketa Txapelketako lehen jardunaldian, Zelandin, beste 72 igerilariarekin: Nahia Olaiz, Unai Fernandez, Mikel Razquin, Aitzol Zelaia, Oihan Andueza, Ekaitz Berdud, Luca Tome eta Asier Razkin. Olatz Azazeta entrenatzailea "oso pozik" dago igerilariak egindako lanarekin.



SAKANA IGERIKETA TALDEA

FUTBOL PREFERENTEA

9. JARDUNALDIKO EMAITZAK	
Altsasu - Doneztebe	3-1
Amigo - Etxarri Aranatz	0-0
Lagun Artea - Rotxapea	2-2

SAILKAPENA	
PREFERENTEKO 1. MULTZOA	
1 Universidad de Navarra	21
5 Altsasu	17
13 Etxarri Aranatz	10
18 Lagun Artea	4

HURRENGO JARDUNALDIA	
LARUNBATA, AZAROAK 12	
15:45 Rotxapea - Altsasu (<i>El Irati</i>)	
IGANDEA, AZAROAK 13	
16:00 Etxarri - Beriain (<i>San Donato</i>)	
16:00 Aurrera - Lagun Artea (<i>Leitza</i>)	

Altsasu eta Rotxapea postua jokatzeraz Donezteberen kontra garaipen polita lortuta, Rotxapea arerio zuzenaren kontra jokatuko du Altsasuk. Postua dute jokoan.

Etxarrik partida zaila du aurretik

Azken aurrekoa den Beriain hartuko du Etxarrik San Donaton. Jokoan dauden puntuak garrantzitsuak dira biendako.

Lagun Arteakoak Leitzara

Azkena da Lagun Artea; Aurrera, ordea, taularen erdian dago. Partida zaila dute lakuntzarrek, baina puntu faltan daude.

PREFERENTEA EMAK.

6. JARDUNALDIKO EMAITZA	
Burladés - Altsasu	6-0

SAILKAPENA	
EMAKUMEEN PREFERENT. 1. MULTZOA	
1 Mutilbera	16
6 Altsasu	9

HURRENGO JARDUNALDIA	
LARUNBATA, AZAROAK 12	
15:45 Altsasu - Univ. Navarra (<i>Dantzaleku</i>)	

Altsasu bosgarren izan daiteke

Larunbatean bosgarren postua dute jokoan Univ. de Navarrak eta Altsasuk.

FUTBOL ERREGIONALA

8. JARDUNALDIKO EMAITZA	
Berriozar - Altsasu	2-4

SAILKAPENA	
ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA	
1 Beti Onak B	22
8 Altsasu B	10

HURRENGO JARDUNALDIA	
IGANDEA, AZAROAK 13	
15:45 Altsasu B - San Fermin (<i>Dantzaleku</i>)	

Altsasuk San Fermin hartuko du

Berriozarren kontra irabazi eta gero, Zizurko ikastolarekin lehiatuko da Altsasu.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI
ASTEAZKENEKO 13:00A BAINO
LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245
/ kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 11

ALTSASU Foroa.

Sakanako industriari berdintasunerako gunea. Sakanako enpresetan gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako estrategiaren berri emateko ekitaldia, Iortia kultur gunean.

- 10:00 Javier Olló Altsasuko alkatearen ongietorria.
- 10:05 Javier Remírez Nafarroako Gobernuko lehendakariordea: Foroaren aurkezpena.
- 10:15 Javier Zubikoa Nafarroako Gobernuko Lan Zerbitzuko zuzendaria: Berdintasuna eta lurralde garapena.
- 10:30 Oihana Gallo San Roman Sakanako Mank-eko berdintasun teknikaria: Berdintasuneko gizarte baterantz Sakanan.
- 10:40 David Oroz Sakanako Mank-eko lehendakaria eta José Julián Garcíandia AESko lehendakaria: Berdintasunerako estrategia Sakanako industriari.
- 11:00 Enpresa esperientzia arrakastatsuak: Hydro, Lacunza Kalor Group, Magotteaux eta Mufabrik.
- 11:40 Itxiera Eva Isturiz Nafarroako Berdintasunerako Institututuko zuzendariarekin.

ETXARRI ARANATZ Nafarroa Oinez.

Andra Mari ikastolak antolatuko duen Nafarroa Oinezko Kale Nagusian dagoen dendaren mustutze ekitaldia.
18:00etan, plazatik dendara.

ALTSASU Gazte agenda.

A25erako pankarta egitea.
18:00etan, Intxostiapuntan.

ETXARRI ARANATZ Omenaldia.

Mikel Arregi gogoan lore eskaintza.
19:00etan, oroigarrian.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN

Viaje al paraíso gaurkotatuzko filma
Ostirala 11 19:00
Igandea 13 19:30

El cuarto pasajero gaurkotatuzko filma
Osteguna 17 19:00
Ostirala 18 19:30

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO TXIKIAN

Balck is beltza II: Ainhoa zineforuma
Igandea 13 19:00

Queso de cabra y té con sal zineforuma
Osteguna 17 19:00

UHARTE ARAKIL Herri batzarra.

Udalak legealdian egindakoa azalduko du eta herritarrek udalarekin zuzeneko komunikazioa izateko aukera izango dute.
19:30ean, udaletxean.

ALTSASU Kantu afaria.

Altsasuko Euskal Herriari Euskarazek antolatutako Kantaita Afaria 2022 Kuxkuxturekin.
21:30ean, Kukuereka elkartearen.

ETXARRI ARANATZ Kontzertua.

Tokan2 la polla La Polla Records tributu taldearen kontzertua.
23:00etan, Leku Ona tabernan.

OLATZAGUTIA Kontzertua.

DJ Zigor Dzren emanaldia.
23:30ean, Barandi tabernan.


LARUNBATA 12

ARAKIL Kultur irteera.

08:30 Arakilgo herrietatik irteera.
09:00 Altsasuko Dantzaleku hariztia ezagutu.
12:00 Pasaiako Albaola Museora bisita.
14:00 Bazkaria.
16:30 Denbora librea Pasaiaren.
18:30 Buelta.

ARBIZU Solasaldia eta tailerra.

Sakanako Itaiak antolatutako Emakume langileen eskola. Autodefentsaren zentzuaz hausnartzen solasaldia eta kick boxing tailerra. Ondoren, luntxa.
11:00etan, borroka klubean.



OLATZAGUTIA *Indarkeriarik kontsumitzen al dugu? Estetika, moda eta publizitatea SETEMen erakusketa.*
Azaroaren 18ra arte. Asteleheneretik ostiralera 15:00etatik 20:00etara. Liburutegian.

ALTSASU Gazte agenda.

Gozamenez: film laburren emanaldia.
18:00etan, Intxostiapunta gaztegunean.

ALTSASU Antzerkia.

Hoy puede ser mi gran noche Tetro en Vilo konpainiaren antzerkiaren emanaldia. Sendaberri Paisaia eszeniko berriak programaren barruan.
19:30ean, Iortia kultur gunean.

ETXARRI ARANATZ Kontzertua.

La Furia rap abeslariaren kontzertua Nafarroan Biran programaren barruan.
20:00etan, kultur etxean.

IGANDEA 13

ALTSASU Familiarteko ikuskizuna.

Los músicos de Bremen Nacho Vilar konpainiaren antzerki musikalaren emanaldia.
17:00etan, Iortia kultur gunean.

ALTSASU Elkarretaratzea.

Euskal preso eta iheslariak etxera.
20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 14

ALTSASU Elkarretaratzea.

Pentsio duinen alde.
12:00etan, udaletxearen aurrean.

ASTEARTEA 15

ALTSASU Solasaldia.

EUSKARALDIA

OSTIRALA 11

OLATZAGUTIA

Euskaraldirako izena ematea eta txapak banatzea.
Goizez eta arratsalde, eskolaren atarian.

LIZARRAGABENGOA

Euskaraldirako txapak banatzea eta izen ematea.
Arratsalde, plazan.

LIZARRAGA Azi Iturri

Txokoa elkartearen.
18:00 Lizarraga kantuzen entsegua.
19:30 izena ematea eta txapen banatzea. Bendube.

UHARTE ARAKIL

Euskaraldirako txapak banatzeko edota izena emateko mahaia.
18:30etik 20:30era, plazan.

ARRUAZU Euskaraldirako izena ematea eta txapak banatzea.
18:30etik 20:00etara, Ostatuan.

ARBIZU Euskaraldirako izena ematea eta txapen banatzea.
18:30etik 20:30era, batzar aretoan.

LAKUNTZA Euskaraldirako izena emateak eta txapen banaketa.
19:00etatik 21:00etara, plazan.

ALTSASU Euskaraldirako izena ematea eta txapen banaketa. Banderolak,

Dolua haurtzaroen eta nerabezaroen Goizargi elkartearen solasaldia. Iñigo Aritza ikastolak antolatuta.
17:30ean, ikastolan.

ALTSASU Irakurle kluba.

Miguel Delibes *El camino* liburua izanen du mintzagai gaztelaniazko irakurle klubak.
18:00etan, Iortia kultur guneako erabilera anitzeko gelan.

zapiak eta boltsak salgai egonen dira. Baita photocalla ere.
19:00etatik 21:00etara, Gure Etxean.

LARUNBATA 12

ITURMENDI Euskaraldirako izena emateko eta txapen banatzea.
12:30etik aurrera, frontoian.

ARBIZU Euskaraldirako izena ematea eta txapen banatzea.
17:00etatik 20:00etara, liburutegian.

IRURTZUN Euskaraldirako izena ematea eta txapen banaketa. Euskaraldiaren dantza eta talde argazkia.
19:00etan, plazan.

UNANU Euskaraldia.

19:00 Zapien jantzea, soziedadean.
19:00 Kantu jira, herritik.
20:00 Beindua-afaria.

IGANDEA 13

ALTSASU Euskaraldirako izena ematea eta txapen banaketa.
12:30etik 14:30era, Gure Etxean.

OSTEGUNA 17

ALTSASU Euskaraldirako izena ematea eta txapen banaketa.
19:00etatik 21:00etara, Gure Etxean.

ASTEAZKENA 16

ALTSASU Kafe konpondu.
17:30etik 19:30era, Gure Etxean.

ALTSASU Irakurle kluba.

Miguel Delibes *El camino* liburua izanen du mintzagai.
18:00etan, Iortia kultur guneako erabilera anitzeko gelan.

HURRENGO ORRIAN JARRAITZEN DU»

Er **vit** **i** aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

Ez bota etxea leihotik!

ESKELA



Ikastolako
hariztiko
hostoak orbel.



Besarkada goxoa
famiarendako.

**Iñigo Aritza ikastolako,
familia, ikasle eta langileak**

OROIGARRIA



**Mikel
Arregi Marin**

XXXIII. urteurrena



Zure irrifarra, zure alaitasuna
gure artean bizirik.

Zure familia
Lakuntzan, 2022eko azaroaren 11n

OROIGARRIA

**Mikel
Arregi Marin**

XXXIII. urteurrena

Zuk finkatutako orubean
ari gara etxea altxatzen!

Lakuntzako ezker abertzalea
Lakuntzan, 2022eko azaroaren 11n

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82€ / 96,80€ / 130,68€
prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k
baino lehen.



IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AGÜ, A TU LAGO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU **ETXARRI ARANATZ**
Santa Cruz, 6 Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRAGARKI SAILKATUAK

OHARRAK

Guardetxeko argazkiak biltzeko deialdia: Lakuntzako Zabalarte Elkarte Aralarko Guardetxe agertzen diren argazkiak biltzen dabil, eta erakusketak bat egin nahi dute "Guardetxe proiektuaren egoera eta egin daitezkeen hurrengo ekintzei buruz hitz egitea" du helburuarekin. Halako irudiren bat duenak udaltxera bulego ordutegian joan daiteke argazkia eskaneatuko dute eta jabeari bueltatuko diote momentuan bertan.

Odol emateak Etxarrin Aranaten: Azaroaren 16an, asteazkenean, 17:00etatik 20:30era, Osasun Etxean.

Irurtzango Udalak euskara ikasteko dirulaguntzak emanen ditu: Joan den urteko irailtik aurtengo agorritera egin-

dako ikastaroak hain zuzen. Baldintzak: 16 urte beteak izatea eta Irurtzunen erroldatuta egotea. Udalak ikastaro mota guztiak lagunduko ditu diruz, baita udako euskarazko unibertsitate ikastaroak ere. Deialdian interesa dutenek eskaerak udaltxeko erregistroan aurkeztu beharko dituzte lastailaren 26tik azaroaren 18ra.

Etxarri Aranaten Kattuka haur eskolako erabilzailleendako dirulaguntza deialdia: Joan den ikasturtean beraien 0 eta 2 urte arteko seme-alabak Arbizuko Kattuka haur eskolan izan zuten etxarriarrek dirulaguntza eskatzeko aukera dute. Hala erabaki du Etxarri Aranazko Udalak, deialdia aurreko ikasturtean haur eskolan seme-alabak zizuten gura-

soendako da. Eskabideak aurkezteko epea azaroaren 20ra arte.

Etxarri Aranazko Udalak herriko entitateei zuzendutako dirulaguntzen deialdia egin du: kultur, kirol eta jendarte entitateei dirulaguntzak emateko deialdia onartu du. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak 2022ko lastailaren 1etik 2023ko irailaren 30era arteko epean egin beharko dira. Eskabideak aurkezteko epea 2022ko abenduaren 31ko 14:00etan amaitzen da. Informazio gehiago www.etxarriaranatz.eus web orrian daude.

Iturmendiko Udalak beheko basoko bidean dagoen langa giltzaz ibi zuen hilaren 18an: basoan barna ibiltzen diren ibilgai-luen mugimendua mugatu nahi du. Hala ere, basora autoz joan nahi dutenek udaltxean giltzaren kopia bat eskatzeko aukera dute.

Harengatik bi euro ordaindu beharko dute.

Emakumeen arteko sareak ehundu: A25 ekimenaren barruan Sakanako emakumeen topaketa egiteko da azaroaren 27an; sortu zure oihal zatia (patchwork) eta ekarri topaketara, bertan oihal zati guztiak ehundu ditugu. Izena eman azaroaren 22a baino lehen berdintasuna@sakana-mank.eus helbidera idatziz.

Arropa bilketa: Arakilgo udalaren arkupean arropa bilketa gune bat irekitze-ra goaz. Hilabeteko lehen azoka egunean, asteartean, 11:00etatik 13:00etara. Errotxapean dagoen Elkarri Laguntza Elkarteak duen egoitzara eramango dugu, bilketaren biharamunean. Ixpiru Taldea 620 254 230 eta Mank Anitzartean 648 070 710 antolatuta.

iragarki@guaixe.eus

OSTEGUNA 17

OLATZAGUTIA Film dokumentalaren emanaldia eta solasaldia.

Invisibles Emma Larreta emakumeen aurkako indarkeriari buruzko dokumentala eta protagonistarekin solasaldia. Sakanako Mankomunitateko Berdintasun zerbitzuak Azaroaren 25aren harira antolatutako ekimena.

19:00etan, kultur etxean.

OSTIRALA 18

OLATZAGUTIA Ipuin kontalaria eta tailerra.

Kamishibai Laika beldar ausarta inposizio sozialekin apurtzen duen beldar baten istorioaren ipuin kontaketa eta tximeleta txotxongiloa sortzeko tailerra. SETEMek antolatuta.

17:00etatik 18:30era, liburutegian.

ETXARRI ARANATZ Bakarrizketa.

Joxe Farra bakarrizketa eta euskarakea.

23:00etan, Leku Ona tabernan.

OLATZAGUTIA Kontzertua.

Fresa Morango taldearen merengito elektronikoa emanaldia.

23:30ean, Barandi tabernan.

JAIOTZAK

- **Aiur Zelaia Zelaia**, urriaren 28an Altsasun
- **Nur Alustiza Alzelai**, azaroaren 1ean Altsasun
- **Itziar Mazkianan Reparaz**, azaroaren 2an Arbizun

HERIOTZAK

- **Margarita Andueza Razkin**, azaroaren 6an Lakuntzan
- **Noa Zhou**, azaroaren 7an Altsasun
- **Maria Paz del Rosario Agirrebengoa Lezea**, azaroaren 8an Altsasun
- **Angel Mari Mendoza Martinez**, azaroaren 8an Olaztin

INFORMAZIO HAU EPATEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70
✉ @Grupolrache
f Grupolrache
🌐 www.tanatoriosirache.es



Luisillo 'Kalandraka' eta Manu Gomez Genua kanta sortu zen gauean. AITOR KARASATORRE

Eneida C. M. eta Erkuden R. B.

ETXARRI ARANATZ

Muxu, muxu. Non nahi duzu muxu? dio La Topadora taldearen azken kantak. Abesti dantzagarriaren letra lagun irteera batean sortu zela esan du Manu Gomez letraren egileak. "Egia esan, plan batean sortu zen. Ilargi beteko gau batean hiru lagun Lizarragako ermitara gaua pasatzera joan ginen eta afaldu ondoren mundua konpontzen edo hasi ginen". Momentu horretatik hiru urte eta pandemia bat pasa dira, eta emaitza hausnarketa horren emaitza *Muxu* abestia da.

Manu Gomez eta Luisillo *Kalandraka* La Topadora taldeko kidea "aspalditik elkartzan" dira, "afariak eta planak egiten ditugu batera", etxarriaren arteko adiskidetasuna, beraz, aspalditik dator. Horieta plan batean sortu zen *Muxu* abestiaren oinarria. "Jendeak besteen bizitzetan eta istorioetan sartzeko beharraz hitz egiten ari ginela nik horren inguruan kanta bat egiteko ideia neukala esan nien. Agian kanpotik begira kanta arina ematen du, baina berez errespetuaz eta norberak bere bizia bizitzeko eskubidea daukala da abestiaren oinarria". Esaldi oso sinple bat esan zuen Gomezek, dena laburbiltzen duena: "Batek muxua eman nahi badio besteari, besteak jaso nahi baldin badi, gelditzen den gauza bakarra da galdetzea non nahi duzun muxua".

Ilargi beteko gau batean, ermitan

Manu Gomez Genua irakasle eta bertsolari etxarriarrak sortu du La Topadora taldeak kaleratu duen azken abestiaren letra: 'Muxu'. Lizarragako ermitara egindako lagunarteko irteera batean sortu zen ideia eta oinarria, duela hiru urte

Luisillok gitarra hartu zuen eta gitarrarekin "lau akorde jotzen" hasi zen: "Esan genuen: 'Benga, kanta egingo dugu', eta hortik hasi zen". Lehenengo akorde horiek grabatuta daude Aitor Karasatorre Mugurutzak, hirugarren lagunak, beti kamararekin eta mobilarekin "gauzak grabatzen" ibiltzen dela dio Gomezek, "eta hori grabatuta dugu".

Garapena

Ondoren gauzak nahaspilatu zirela esan du Gomezek, hala ere, lehenengo ideiak abestian jarraitzen duela. "Guk uste

"JENDEAK BESTEEN BIZITZATAN SARTZEKO BEHARRARI BURUZ HITZ EGITEN SORTU ZEN"

dugu mezua garbia dela". Lizarragako ermitan hasitako horrekin hasi, eta 2020ko martxoan koronabirusaren eraginez "itxi gintuztenean bakoitzak bere aldetik jarraitu zuen. Luisillok musika bat eman zidan eta horri metrika eta abar ateratzen aritu ginen". Letrak elkar trukatzan zituzten ere, "baina bakoitza bere etxetik, elkartu gabe".

"Besteak beste, itxialdiarekin lapurtu zizkiguten gauza inportanteetako bat elkarren arteko kontaktu fisikoa eta elkarren arteko besarkadak eta sentimendu adierazpenak izan ziren, orduan, zenbait momentutan mezua aldatzea pentsatu genuen". Baina azkenean sinpletasunera eta gauza oso xumeak esateko bidea hartu zutela azaldu du Gomezek. "Nik uste dut funtsean ez dela

asko aldatu". Egoerak baldintzatu zuen abestiaren nondik norakoa: "La Topadorak disko bat plazaratu zuen itxialdia baino hamabost egun lehenago eta orduan praktikoki lehenengo diskoa plazaz plaza kantatu aurretik, bigarrenarekin hasi ziren. Orduan, dezente luzatu da kanta plazaratzaren istorioa".

Gomezek abestiarekin "oso gustura" gelditu dela esan du. "Bideoan muxu guztiak dira maitasun muxu sakonak eta nik anitzagoak irudikatzen nituen, baina azkenean parte

"BATEK MUXUA EMAN NAHI BADIO ETA NAHI BADU NON NAHI DUEN GALDETZEA GERATZEN DA"

hartu zutenei muxuak emateko eskatu zitzaizen eta horiek ematea atera zitzaizen". Muxu mota desberdinak irudikatzen zituen etxarriarrak: "Masailean emandako muxuak, lagunaren artean emandakoek ere badute beren tokia". Bideoan "elkarri muturrak berotzen" ateratzen dira gehienak, "baina oso polita ere bada".

"Iruditzen zait inor ez dela ohartu atzean zer dagoen bideoa ikusten duen arte, eta hori ere gustatzen zait". Kanta arin bat dela eta edozeinek bere egingo zuena dela azaldu du Gomezek, "baina errealitatean gero ez du edozeinek bere egiten; sartzen garelako besteak zer egiten duen eta norekin egiten duten zer".

Letrak

Gomez bertsolaritzan aritutakoa da, eta ez da lehenengo aldia abesti bati letra jartzan diona. "Nik zenbatzen ditut lau kanta". Lehenengoa SOS Balcanes kampaina batean kanta bati letra jartzeko eskatu zioten. "Uste dut 19 urte nituela. Egia esan, kanta hori orain non dagoen ere ez dakit, baina tokiren batean egongo da". 2011an Etxarri Aranatzekin zuten *Gora herri askeak* lip dub-aren abestiaren letra ere Gomezek sortu zuen, "katalandarren kanta baten antzekoa abestia egin genuen, beraien musika erabilita". Inigo Aritza ikastolan egin zuten *Euskara da Euskal Herri* kanta edalontziekin interpretatu zutena ere egin zuen, "beste kanta baten bertsio erabat librea egin genuen euskaraz".

Abesti gehiago sortuko ditu Gomezek? "Sortzen bada ongi, bestela ezer". Aurretik egingadako kantak kontestu eta eskaera jakin batzuetan sortuak izan ziren, *Muxu* abestia, aldiz, lagun arteko giroan sortu zuten. "Horren atzean eskarmen handiko musikariak daude. La Topadora osatzen duten kide guztiak jarri dute haien zerbait. Luisillok oinarria eta musika jarri zuen, eta gero Javiero eta beste guztiak aritu dira berea jartzan eta konponketak egiten". Bideoklipa Karma Filmseko Ibai Zabalak eta Mikel Gabiolak egin dute eta Etxarri Aranatzeko kultur etxean grabatu zuten. Dagoneko Interneten ikus eta entzun daiteke.

ZinUEMA, Euskarazko zinema sustatzeko

UEMAk euskarazko ikus-entzunezkoen eskaintza egonkor baterako esperientzia pilotua jarri du martxan. Hamabi ikus-entzunezkoen egitaraua da ekimenaren oinarria. Lau udalerritan eskainiko da egitaraua, tartean Etxarri Aranatz

ETXARRI ARANATZ

Zinema aretoetan dagoen euskarazko eskaintza urriari erantzuteko asmoz, ZinUEMA egitasmoa sortu du UEMAK, Tinko Filmeak-ekin elkarlanean. Egitasmoaren barruan euskarazko hamabi ikus-entzunezkoen emanaldiak egingen dituzte, azaroaren 25etik otsailaren 19ra arte, Igoeren, Etxarri Aranatz, Azpeitian eta Ataunen. Askotariko ikus-entzunezko proiektuak dira. Egitasmoa proba pilotu bat da eta emaitza ona bada eskaintza zabaltzea da UEMAREN asmoa.

Ekimenaren aurkezpenaren iraitz Lazkano UEMAKo lehen-dakariak esan zuen administrazioen ardura dela euskarazko ikus-entzunezkoen ekoizpena sustatzea eta programazioetan lan horiek txertatzearen aldeko apustu egitea: "Horregatik abiatu dugu ekimen hau, gure toki administrazio gisa dagokiguna kontuan hartuta, gure esku dagoena egiteko, borondatea izanez gero bidea egin daitekeela erakusteko". Lazkanok gaineratu zuenez, Euskal Herrian kultur kontsumoari buruz egindako azken ikerketek erakusten dute euskarazko kultur kontsumoa erdarazkoen oso azpitik dagoela.

Programa

Tinko Filmeak-en helburu nagusia euskarazko zinema komertzialaren eskaintza gabeziari erantzutea da. Tinkoko Inigo Arandiak azaldu duenez, ia 30 urte hasi ziren lanketa horrekin eta egungo egoera ez da askoz hobe. Pantailak Euskaraz herri mugimenduak emandako datuak aipatu zituen: "Gaur egun, bertako ekoizleek sortzen dituzten euskarazko filmak bi edo hiru izan daitezke urterik hoberenean, eta Eusko Jaurlaritzaren menpe dagoen Zineuskadi erakundeak hamar eta hamabi film bikoizten ditu urtean, haurrei zuzendutakoak gehienak".



ZinUEMA parte harte duten ordezkariak, tartean Etxarri Aranatzko alkatea. UEMA

AZAROAREN 24TIK OTSAILAREN 11RA ARTE EUSKARAZKO HAMABI IKUS-ENTZUN EMANEN DITUZTE

Lanak ikusteko, saio bakoitzeko sarrerez gain, bonu sistema bat dago non 20 euroren truke hamar eduki malgutasunez ikusteko aukera dagoen. 1.500 bonu inprimatu dira, eta sarrera txartelarekin trukatu beharko dira emanaldien aurretik. Bonua erosten dutenek sarrera merkeago izanen dute eguneko txartela erosten duten norbanakoek baino. Bonuak Etxarri Aranatzko udaletxean eskura daitezke, eta ekitaldi aurretik sarrerak eskuratzeko lehen tasuna izanen dute. Bi ekimen ez dira bonuaren barruan izanen eta zuzenean sarrerak erosi beharko dira: *Goazen 9.0* azken kapituluaren aurre estreinaldia eta *Irabazi arte* lehenengo kapituluaren aurre estreinaldia.

Emanaldien ostean ikusleek iritzia jasotzeko balorazio inkestak egingen dituzte esan dute antolatzaileek: "Probapilotu hau behar

bezala neurtzeko, oso beharrezkoa izanen da ikusle balarazioa egitea". Hori guztia ebaluatzeko inkesta bat bete beharko dute ikusleek emanaldi bakoitzaren ostean, eta erantzuten duten guztien artean 55 hazbeteko wifi telebista bat zozketatuko dute.

Eskaintza

Azaroaren 24an eskainiko dute Etxarri Aranatz programaren lehenengo ikus-entzunezkoa: *Zure platarean hasten da mundua* dokumentala. Abenduaren 8an *Izurdemagikoa* animazio filma emanen dute eta 11n *Lupin III*. Abenduaren 18an, plazan, Bertso Txapelketa Nagusiko finala eskainiko dute eta abenduaren 29an *The Snow Queen* animazio filma ikusteko aukera izanen da. Urtarrilaren 8an, igandea, *Nire zirkua* filma proiektatuko dute eta urtarrilaren 12an *Black is beltza II: Ainhua* filma. Urtarrilaren 22an eta 29an *Goazen 9.0* azken kapituluaren aurre estreinaldia eta *Irabazi arte* lehenengo kapituluaren aurre estreinaldia izanen dira, hurrenez hurren. Azken bi saioak otsailaren 5ean *Gabi* dokumentalarekin eta otsailaren 8an *Emakumea* film laburrarekin izanen dira.



BAZTERRETIK

MIKEL MAIZA RAZKIN

Barnako azokan barna

Askotan hitz egin dizuet komikiak aurkitzeko parajeez. Nik liburutegia hilabetean behin bisitatzen dut gutxienez eta noizbehinka komiki denda, askotan bigarren honetatik esku hutsik ateratzeko banaiz ere. Badago komikiak bizi diren beste toki magiko bat, liburuekin batera. Liburu azoka da leku liluragarri hau.

GUAIXEKO "komiki korrespontsal ofizial" moduan agertu nintzen Bartzelonako "Sant Antoni" azokan, igande goizero ospatzen den liburu azoka honi buruzko kronika ene jarraitzaile amorratuei ekartzeko. Igande goizetako Sant Antoni azoka hau Bartzelonako frikien artean famatua da. Liburu azoka berezia baita.

Metrotik atera eta jende mordo zen han. Azokako lehen taldea aurkitu nuen: kromo bildumazaleak. Merkatua inguratzen duten espalo eta izkinetan jende pila, denok zutik. Ume, gazte eta heldu, beraien artean kromoak, txapak, tazoak... trukatzeko prest ziren. Adituenek libreta eskuan zeukaten trukeak bertan

idazteko. Barrurago, han zen azoka, jende beteta.

Liburu pila ziren han, zahar nahiz berriak. Postu gehienak liburu postuak ziren. Komikiak zituzten postu asko ere ikusi nituen. Bazen posturen bat disko eta biniloendako. Film, anime eta edozeri buruzko posterrak, anime irudi eta figurak, bideo jokoei buruzko edozer saltzen duten postutxo bat. Bartzelonako manga azokan nenbela zirudien. Aurkitu nuen bitxia? Postalak saltzen zituen postu bat! Ez da txantxa, aizu! Hiru metro luze kaxa dena edonongo postalez beteta!!! Hala estatuko nola atzerriko postalak!

Sant Antoniko azoka bildumazaleen paradisua da. Jendea negoziatzen ikusi nuen, haien komiki zaharrak postukoei saltzen, "Messi" mailako "regateo" eta, batez ere, bitxikeria eta zaharkin asko. Kultura zaharrak eta berriak eskua ematen diote elkarri toki zoragarri hau sortzeko. Noizbait Bartzelonan bazarete, ez galdu aukera eta etorri igande goizean Sant Antoniko azokara!



ETXEPARE SARIA

'Kiratsa' liburu bat da

Eider Pérez Adeletx idazleak eta Iban Illarramendi ilustratzaileak sortu zuten *Kiratsa* album ilustratuak irabazi zuen 2022ko Etxepare Saria, eta orain, sariaren barne, liburu bihurtuta ikusteko aukera izan dute. Pamiela argitaletxeak argitaratu du *Kiratsa* album ilustratua. 35 lan aurkeztu ziren lehiaketara.

Erkuden Ruiz Barroso ARRUAZU

Oraindik bere burua zinemagiletzat jotzea "zaila" egiten zaiola esan du Olatz Ovejero Alfonsok. Film labur bat egin zuen eta orain *Iruñea, mon amour* eta *Hiru bider* proiektuetan lanean ari da; "gutxinaka" zinemaren munduan murgiltzen. Barañainen jaioa da, baina sustraiak Arruazun ditu. Bertan, besteak beste, amona bizi da eta herrira askotan joaten da. Landa mundua asko gustatzen zaito eta bere hurrengo pelikulak landa munduarekin eta Arruazurekin erlazioa edukiko duela azaldu du, "niretzat Sakana eta Arruazu oso garrantzitsuak dira; nire bizitza hor egon da". Bere imaginarioan eta pelikuletan azalduko da, "baita natura eta naturarekin daukagun erlazioa ere".

Zergatik ikasi zenuen ikus-entzunezko komunikazioa?

Txikitatik artea pila bat gustatu izan zait; idaztea eta istorioak kontatzea. Aitak beti esaten zidan asmatzen nituen ipuinak idatzi behar nituela. Orduan, gutxinaka hasi nintzen. Gainera, modu organikoan izan zen. Pila bat gustatzen zitzaidan grabatzea eta horren bidez istorioak kontatzea. Pila bat gustatzen zait ere hori dena gordetzea, eta orain konturatu naiz grabatutako guztia dokumentalak zirela. Kakotxen artean, baina ez ziren fikzioa aktoreekin eta horrelakoekin eginak. Gehienbat gurasoengana, aitona-amonengana, lehengusu txikiengana joaten nintzen eta elkarrizketak egiten nizkien. Ikus-entzunezkoa komunikazioa ikastea erabaki nuen eta modu inkontzientean izan zen. Ez neukan buruan zinema egingo nuenik. Gauzak agertzen joan ziren eta zer gustatzen zitzaidan ulertzen hasi nintzen.

Eta zergatik dokumentalak?

Ikus-entzunezko komunikazioan dokumentalaren inguruan ikasten hasi ginenean konturatu nintzen hori zela bete-betean gustatzen zitzaidana. Batez ere produkzio txikiak, gertuko istorioak. Horrela erabaki nuen Bartzelonako Dokumental masterra egitea. Erdigunetik kanpo gelditzen diren istorio horiek gustatzen zaizkit, eta Euskal Herriak badauka kontatu gabe dauden istorio pila bat.

'A cambio de tu vida' film laburra egin zenuen. Zer kontatzen du?

Masterrean egin genuen eta lan kolektibo bat izan zen. Momentu horretan Tarragonako petroki-

"Erdigunetik kanpoko istorioak gustatzen zaizkit"

OLATZ OVEJERO ALFONSO ZINEMAGILEA

Sustraiak Arruazun ditu eta herriak eta amonak bere proiektu baterako inspirazioa izan dira. 'Iruñea, mon amour' eta 'Hiru bider' dokumentalak lantzen ari da



Olatz Ovejero zinemagilea. UTZITAKOIA

mikan leherketa bat egon zen eta hara hurbildu ginen. Ikusi genuen sekulako mugimendua zegoela langileekin eta horrek interesa piztu zigun. Erabaki genuen haien mugimenduaren inguruan dokumentala egitea eta erakustea

"LEHENENGO FASE HONETATIK GUSTATZEN ZAIT NOLA JOATEN DIREN ALDATZEN"

zein zaila den horrelako mundu kapitalista eta individualista batean elkartzea eta ideia baten alde borrokatzea.

Orain beste proiektu batekin zaude: 'Iruñea, mon amour'.

Maria Luisa Elioren istorioa kontatzen du. Iruñean jaio zen baina hamar urterekin erbestera joan behar izan zuen Gerra Zibila zela eta. Bere familia Iruñeko dirudunetako bat zen; Barañaingo jabeak ziren. Etxebizitza batzuk eraikitzeke obra batzuk egiten hasi ziren eta horren harira ezagutu nuen bere istorioa, bertan, bere etxea zegoelako. Nire interesa piztu zuen eta ikeritzen hasi nintzen. Proiektuarekin Galiziako Intersección jaialdian egon naiz eta Bartzelonako La Alternativen hartu dute ere beste laborategi batean lan egiteko.

Nolakoa izan da filmaren prozesua?

Obrak egiten hasi zirenean hasi nintzen grabatzen. Pila bat gustatzen zait lehenengo etapa honetan, idazketa prozesu honetan, proiektuak nola aldatzen diren. Pelikula oraindik nire buruan dagoenez, eta dossierretan idatzita, aldatzen joan da eta nire ama ere sartu da. Erlazioa zuela ikusi nuelako. Maria Luisa Eliok bi liburu eta senarrarekin batera *En el balcón vacío* filma egin zituen, eta batez ere identitateari buruz hitz egiten zuen; bere obra artistikoan behin eta berriz Iruñeaz eta Barañainez hitz egiten du. Proiektua *Iruñea, mon*

amour deitzen da horrela deitzen ziotelako Mexikon, beti Iruñeaz hitz egiten zuelako. Filma erreferenteetaz hitz egiten du. Orduan, Mari Luisa Elio erreferentea da, baita nire ama ere. Balkoitik grabatzen ari naiz eta berarendako balkoia eta leihoa toki oso garrantzitsuak dira. Eraikiko dituzten etxebizitzek bistak aldatuko dizkigu. Proiektu honekin pozik sentitu zen ama eta kanpoan nagoenean berak grabatzen du, Elioren etxera nirekin etorri zen... Oso sartuta dago.

Laborategietan parte hartzeko hautatua izan da, baina zer dira?

Zinemagile batzuekin elkartzen gara eta koordinatzaile bat egoten da bere iritzia ematen. Oso polita da beste zinemagileekin hitz egitea, lana besteen aurrean aurkezten duzulako. Ideia buruan duzuen zaila izaten da pertsona baten aurrean zure proiektua zer den adieraztea. Batez ere hasten ari zarenean. Hainbeste gauza izan daitezke edo hainbeste lekutatik joan daiteke proiektua, erabakitzen duzuen pertsona batzuen aurrean jartzea eta ahoz esatea zer den, ariketa oso garrantzitsua da. Batez ere lehenengo urrats horiek oso bakartiak direlako, eta horrela baduzu motibazio bat aurrera egiteko.

Beste proiektu bat 'Hiru bider' da.

Iruñea, mon amour obrekin batera doa eta beste bi edo hiru urte gelditzen zaizkio. Momentu honetan freskoago daukat *Hiru bider*. Uhartea Zentroak beka bat eman zidan Italian erresidentzia artistikoa egiteko, Erroma ondoko hamabost biztanleko herri txiki batean egon nintzen irailan landa gaiak jorratzen dituzten artistekin batera. Oso esperientzia polita izan zen. Pelikularen gidoia idazteko aukera izan nuen.

Zer kontatzen du?

Hirueuskalemakumeen inguruan hitz egiten du. Nafarroako emakume bat, Arruazuko amona, iparraldeko emakume bat eta beste bat Gipuzkoakoa. Ideia da hiru emakume hauen erretratua egitea; haien egunerokotasunaren bizitzaren inguruan. Emakume, euskaldun eta baserritarra zer den jakiteko. Gustatuko litzaidake, eta hori da Italian landu nuen, mitologian barna ibiltzea; batez ere Mariren mitoa, matriarkatuaren mitoa eta nola ematen den Euskal Herrian kontestu honen guztiaren barruan emakume euskaldun eta baserritarra izatea.

"Argi genuen ongi pasatzera joan ginela"

Jone Rubio Mazkiaran altsasuarrak, Sarai Robles barañaindarrarekin batera, EITBko Mihiluze lehiaketan parte hartu zuen. Urduritasunak proba batean eragina izan zuen eta ez zuten aurrera egin; hala ere, esperientzia errepikatuko luke

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

1 Mihiluzen parte hartu zenuten. Nola izan zen parte hartzeko prozesua?

Gure buruen aurkezpen bideoa prestatu eta Mihiluzera bidali genuen. Horren ondoren galdeketa bat egin ziguten eta azkenik programaren grabazio eguna zehaztu ziguten.

2 Zergatik animatu zineten?

Inguruko lagun batzuk aurkezten hasi ziren. Ilusioa ere egiten zigun, beraz, bideoa prestatu eta bidali genuen.

3 Nolako izan zen grabazioa? Zenbat denbora egon zineten?

Miramонера iritsi ginenean proben arauak azaldu zizkiguten, horren ostean makillatzera eramantzen gintuzten. Geroxeago partaideak ezagutu genituen, haiekin bazkaldu genuen eta azkenean programa filmatzera joan ginenean. Egia esan, denbora gehio eman genuen horrelakoetan programan baino. Lehenengo kanporaketan galdu genuen.

4 Zer moduzko esperientzia izan zen?

Bidean urduri geunden, baina bertara iritsi ginen momentuan esperientziaz gozatu genuen. Motza izan zen, baina zer egingo diogu.

5 Programa barrutik ezagutu aurretik, horrela izatea espero zenuten?

Egia esan ez genuen espektatiba handirik, argi genuen ondo pasatzera gindoazela.

6 Prestatu zineten?

Aurreko egunean entrenamendu txiki bat egin genuen, eta, beno, etxean programak ikusi genituen proben gakoak barnertatzeko.



Jone Rubiok eta Sarai Roblesekin Mihiluzen parte hartu zuten. UTZITAKOA



Jone eta Sarai Mihiluzen. UTZITAKOA

7 Zer egin behar izan zenuten?

Lau proba egin genituen: lehenengoan hitzak lotu behar genituen eta oso ondo atera zitzaigun, ez genuen akatsik egin. Hurrengoan, imintzioak egin behar genituen, eta hor pixka bat blokeatu nintzen, baina beno. Hirugarren proban ere puntu nahikotxo irabazi genituen, eta beste partaideekin parekatuta egotea lortu genuen. Dena dela, *tribuen berban* gaiak zertxobait deskolokatu gintuen eta hori izan zen gure kaleratzearen gakoa.

8 Lehiaketa zer moduz joan zen?

Hasieran ondo, baina azkeneko probaren emaitzak kalterako baldintzatu gintuen. Dena dela, ez genuen ezer irabazteko

anbizio handirik. Argi genuen ondo pasatzera gindoazela.

9 Bueltatuko zinateke? Zer aldaituko zenukete?

Bai! Asko gustatuko litzaiguke, azkenean proba batek baldintzatu gintuelako; urduritasunak...

10 2013an amaitu zen Mihiluze, eta orain itzuli da. Aurretik ezagutzen zenuten?

Bai, txikitik ikusten nuen nik, eta asko gustatzen zitzaidan, egia esan. Hori izan zen joatera bulzatu ninduten arrazoiak bat.

11 Jendea parte hartzera animatuko zenukete?

Bai, noski! Esperientzia polit eta dibertigarria da.